

3,50 euro
AEKren aldizkaria
2023ko abendua

aizuru!

482

23. Korrika
hitz gutxitan

Durangoko
Azokan,
kultura eta
beste

*Perkainen
itzalean*
dokumentala

Sara Zozayari
elkarrizketa

POU ANAIAK
LEHIARIK EZ MENDIAN





Lezoko Unibertsitateko Udala

Informa zaitez
zure herriko euskara ikasteko
beka aukeraz!

Euskaraz zara,
euskaraz gara.

LEZOKO Udala

euskararekin bat



EUSKARA
ZERBITZUA

☎ 943 513 476
euskara@lezo.eus
www.lezo.eus

Ander ARRIGURI



12

12
Sara Zozaya
arin-arin

Andoni URBISTONDO



28

20
23. Korrika labor-labur

24
Durangoko Azoka
barrutik

28
Durangoko Azoka
kanpotik

30
Zelan euskaraz?
Joli Pascualena

31
Pilota jokoa Alduden

FOKU



30

Mikel ERRAMUZPE



31



20



24



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK)
DIRUZ LAGUNDUA

Koordinazioa: Eñaut Mitxelena. **Erredakzioa:** M. Egimendi, Eñaut Mitxelena.

Kolaborazioak: Joxe Rojas, Gotzon Herrosilla, Aitor Fdez. de Martikorena, Jon Rejado, Inhar Iraizotz, Onintza Enbeita, Alessandro Ruta, Andoni Urbistondo, Maider del Olmo, Marcos Tedin.

Hizkuntz arduraduna: Usua Alberdi. **Argazkilariak:** Amaia Zabalo, Iban Aginaga, Mikel Martinez de Trespuentes. **Azaleko argazkia:** Amaia Zabalo. **Diseinua eta maketazioa:** Eba Arratibel. **Komikiak:** Eñaut Aiertzagüena Bravo, Zaldi Eroa.

Publizitatea: Xabier Garmendia • Iztueta kalea 3, behea • 20001 DONOSTIA • Tel. 607 596 112 • aizupubli@aek.eus.

Egoitza nagusia: Iztueta kalea 3, behea • 20001 DONOSTIA • Tel. 607 638 660 • aizu@aek.eus.

Administrazioa eta harpidetzak: Juanma Etxebeste • Iztueta kalea 3, behea • 20001 DONOSTIA • Tel. 607 532 846 • juanma-e@aek.eus.

Inprimaketa: Antza.

L. G. BI-242881
ISS 1132-1709

AIZU! ez du nahitaez bat egiten kolaboratzaileen iritziekin. Erantzukizuna egileena da.



Zaintza eskubide kolektiboaren alde.

**AIZU!ko kideok Greba Feminista Orokorrarekin bat egin dugu zaintza eskubide kolektiboaren alde, egungo antolamendu soziala aldatu nahi dugulako eta zaintza lanak erantzukizun komunitario gisa ulertzen ditugulako.
Jar ditzagun denon bizitzak erdigunean!**



Gezurrak

Gero eta jende gehiagok esaten dit deseroso sentitzen dela umeekin Olentzeroz eta Mari Domingiz hizketan. Askok kostatzen omen zaie umeei gezurra esatea. Ulertzen diet eta ez diet ulertzen. Nik ez daukat neure umerik, eta horregatik egingo zait errazagoa halakoak esatea, baina ez dut uste geure buruarekiko **zintzoak**¹ garenik. Uste dut ume baten bizitzan gehien eragingo duen gezurra ez dela izango Olentzero eta Mari Domingi benetakoak direla esatea. Esate baterako, gurasoak beti elkarrekin egongo direla esaten zaie edo **iradokitzen**² zaie, hala ez dauden arte, edo ikasi behar dutena eskolan ikasiko dutela, edo denborak bakoitza bere lekuan jarriko duela, edo bizitzan nahi dutena egin ahal izango dutela, edo ez dutela nahi ez dutena egin beharko, edo zaharrak garenan hiltzen garela, edo... Haurrei gezur asko esaten zaizkie, gure balioak barnera ditzatela nahi dugulako, eta geuk erabakitzen dugu

umeentzat garrantzitsua zer izango den, adibidez.

Ez naiz inor seme-alabei zer esan behar zaien epaitzeko, baina badakit egia osoa ez zaiela ia inoiz esaten. Kontua da guk umetan bizi izan genuenaren arabera eraikitzen ditugula gauzak helduak garenean, eta pertsona ugarirentzat gurasoek esandako lehen gezurra Olentzerorena izan zen. Edo hala gogoratzen dute, behintzat. Nik ez diot sekula utzi magian sinisteari, ordea. Pentsatzen dut bizirik irauteko beharrezkoa dela fantasia, eta hari eusteko neure buruari gezurra esan behar badiot, gezur txikiak gehienetan, esan egiten dizkiot. Munduari eustea ariketa zaila da, eta batzuetan gauza zehatzek eta ziurrek ez dute balio. Niri ez, **bederen**³. Nik nahiago dut Olentzerori gutunak idazten jarraitu, nahiz eta jakin badakidan eskatutakoa neuk erosi, eraiki, egin edo desegin beharko dudala. Batzuetan, gure buruari hitz egiteko modua besteekiko edo gauzekiko ditugun jarreretan erreproduzitzen dugu.

ESANAK

“Jende gehiena erdipurdikoa da”

MARIA OSES, IDAZLEA

“Kaleak futbol txapelketa bat irabazten denean betetzen dira, baina ez aurkikuntza zientifiko bat egiten denean”

SILVIA BONOLI, ASTROFISIKARIA ETA IKERBASQUEKO IKERLARIA

“Pornografia indarkeria eskola bihurtu da”

NEREA MELGOSA, JAURLARITZAKO BERDINTASUN SAILBURUA

“Orain mundu guztiak izan nahi du feminista, baina emakumeen aurkako indarkeriak ez du etenik”

CHRISTINE LAMBERTY, ZINEMA ZUZENDARIA ETA AKTIBISTA

“Umorea ura edatea bezala da: egunero hartu behar dugu, une batez bada ere”

KAITIN ALLENDE ZALDUNBIDE, UMORISTA

1. **Zintzo:** *honesto, -a (es), honnête (fr).*

2. **Irado:** *sugerir (es), suggérer (fr).*


3. **Bederen:** *al menos (es), au moins (fr).*

irritzia



MUNDUA BERO BOLADAK, GERTAKARI METEOROLOGIKO HILGARRIENAK

Muturreko¹ beroaren eraginez, urtero 490.000 lagun inguru hiltzen dira munduan. Horrenbestez, eguraldi gertakarien artean heriotza gehien eragiten duena da. Hala jakinarazi du Munduko Meteorologia Erakundeak, klima zerbitzuei buruz egin duen azken txostenean. NBE Nazio Batuen Erakundearen agentziak, unibertsitateak, zientzia elkarteak... munduko 40 erakunderen datuekin osatzen dute urtero txostena. Datuen arabera, 2000. urtetik 2019. urtera 489.000 lagun hil ziren, urtero, **bero boladen**² eraginez. Gehienak Asian (% 45) eta Europan (% 36). Gaixotasunen hedapena, lehorteen eta/edo uholdeen eraginez sortutako **goseteak**³... klima aldaketak ondorio kaltegarri ugari sortzen ditu. Muturreko beroak, gainera, hainbat ondorio **larriagotzen**⁴ ditu. Esaterako, airearen kutsadura, heriotza **goiztiar**⁵ askoren jatorria, hain zuzen ere. Gainera, txostenaren egileen ustez, beroaren eragina **gutxietsia**⁶ dago: haren ondoriozko heriotza tasa egun erregistratzen dena baino 30 aldiz handiagoa izan daiteke.



KULTURA OMAKO BASOA BERRIZ ZABALDU DUTE




Bizkaiko Foru Aldundia

Amaitu da Omarko basoaren lekualdatzea eta zabalik da dagoeneko. Agustin Ibarrola hilberriak Kortezubin (Bizkaia) sortutako proiektua 2018an itxi zuten, segurtasun arrazoiengatik. Tokiz aldatzea erabaki zuten, Ibarrolak margotutako pinuz osatutako basoa bizirik mantentzeko. 2022an hasi zen lekualdatzea, eta, behin amaituta, Kortezubiko beste **paraje**⁷ batean bisita daiteke orain. Aldaketa egiteaz hainbat arlotako kideek osatutako talde bat arduratu da, Fernando Bazeta EHuko irakasleak gidatuta. Emaizta, Omarko baso **jasangarriagoa**⁸ eta osoagoa, baita Ibarrolaren jatorrizko ideiarekiko **leialagoa**⁹ ere. Izan ere, handitu egin dute. Horrela, Ibarrolak **jatorrizko**¹⁰ proiektuan margotu ezin izan zituen multzoak ere

sartu dituzte: guztira, 34. Bisitarietzako **bidezidor**¹¹ erosoago eta **irisgarriagoak**¹² prestatu dituzte, eta zuhaitzak babesteko neurriak hartu. Hori bai, basoa ikusteko aurretiko erreserba egin beharko da Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean.

HISTORIA EUROPAKO LEHEN GATAZKA HANDIA GUARDIAN IZAN ZEN

Neolito garaian gertatu zen, duela 5.000 urte inguru, Europako lehen gerra handia, egun Guardia (Araba) dagoen lurretan. Orain arte uste izan da lehen borroka handia 1.000 urte geogo izan zela, Alemanian. Hala dio, behintzat, Valladolideko Unibertsitateko (Espainia) Teresa Fernandez Crespo irakasleak zuzendutako ikerketa batek. *Scientific Reports* aldizkarian argitaratutako ikerketan, Aranzadi Zientzia Elkarteko zenbait kidek ere parte hartu dute. Arabako Errioxako San Juan Portam Latinam **aztarnategian**¹³ topatutako 338 giza **hezurdura**¹⁴ aztertu dituzte. 1980ko eta 1990eko hamarraldietan aurkituak, gehienek indarkeria **zantzuak**¹⁵ dituzte: geziek eragindako zauriak eta **garezurreko**¹⁶ traumatismoak, besteak beste. Horiek interpretatuta ondorioztatu dute gatazka handi, antolatuta eta luzea izan zela, *"gutxienez hainbat hilabete iraun zuena"*. Eta, batez ere, gizonen egindakoa. Orain arte adituek uste zuten Neolitoan ez zutela gerra luze eta handiak egiteko **ahalmenik**¹⁷, eta borrokak motzak eta talde txikien artekoak izaten zirela.



Gezi punta sartuta duen buruhezurra.

Funtzsa: Bibat - Arabako Arkeologia Museoa



EUSKARA 'HEZKUNTZA EREDURIK EZ' ADIERAZPENA PLAZARATU DUTE

Helduen Euskalduntze Alfabetatze sektoreko Herri Ekimeneko Euskaltegi gehienek, AEKrenek ere bai, *Hezkuntza Eredurik Ez* adierazpena adostu eta kaleratu dute. Bertan, kezkatuta ageri dira EAEko Hezkuntza Lege berria idazteko prozesuak daraman martxagatik. Orain arteko ereduen sistemak ez duenez *"inondik inora bermatzen etorkizuneko belaunaldi euskaldun eleaniztunak¹⁸ sortzea"*, behar-beharrezkoa **deritzote¹⁹** euskarazko ikaske-ta eredu orokortua abian jartzeari, belaunaldi berriei euskararen ezagutza egokia ziurtatzeko. Halaber, lege proiektuak hizkuntza-aren eremuan hutsune nabarmenak dituela iritzita, azaldu dute orain dela *"muga horiek gainditu eta jauzia emateko"* unea. Hala, Hezkuntza Lege berriak euskara gehiago behar duela adierazi dute, *"gutxien duenari gehiago eman ahal izateko."*

1. **Muturreko:** *extremo, -a (es), extrême (fr).*
2. **Bero bolada:** *ola de calor (es), vague de chaleur (fr).*
3. **Gosete:** *hambruna (es), famine (fr).*
4. **Larriagotu:** *agravar(se) (es), (s')aggraver (fr).*
5. **Goiztiar:** *precoz (es), précoce (fr).*
6. **Gutxietsi:** *subestimar (es), sous-estimer (fr).*
7. **Paraje:** *toki, leku, ingurune.*
8. **Jasangarri:** *sostenible (es), durable (fr).*
9. **Leial:** *leal (es), loyal (fr).*
10. **Jatorrizkoa:** *hasierako.*
11. **Bidezidor:** *sendero (es), sentier (fr).*
12. **Irisgarri:** *accessible (es), accessible (fr).*
13. **Aztarnategi:** *yacimiento (es), lieu de vestiges (fr).*
14. **Hezurdura:** *esqueleto (es), squelette (fr).*
15. **Zantzu:** *señale.*
16. **Garezur:** *cráneo (es), crâne (fr).*
17. **Ahalmen:** *capacidad (es), capacité (fr).*
18. **Eleaniztun:** *plurilingüe (es), multilingue (fr).*
19. **Deritzote:** *irizten diote, uste dute.*

LIZARRALDE SOINUA TXALAPARTA



Audio profesionala, megafonia



www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
 945 22 69 77
GASTEIZ

Bodegas Lezaun

ASADOR - JATETXEA

- BISITA GIDATUAK MAHASTIETARA - BISITA GIDATUAK UPATEGIRA
- ARDO-DASTATZEAK - BAZKARIAK ETA AFARIAK - ARDOEN ZUZENEKO SALMENTA



SARAKI - DEJERRI - INAFARRA | UPEGIA: 948 541 339
WWW.LEZAUN.COM | INFO@LEZAUN.COM



www.erimasl.com

ESKOLA ETA BULEGO
MATERIALA ETA
ALTZARIAK

aek-ren
hornitzaileak

GIZARTEA ESAKO URTEGIA HANDITZEKO LANAK, ETENDA¹

Ebroko Ur Konfederazioak aitortu duenez, Esako urtegia handitzeko lanak **"behin-behinean"**² geldiarazi dituzte. Urtegiaren **gainezkabideak**³ moldatuko dituzte, eta egokitzapena **izapidetu**⁴ bitartean etengo dituzte. Aurretik, Rio Aragon eta Esa Gehiago Ez elkarteek jakinarazi zuten obretan bi langile besterik ez zegoela. Nafarroako urtegirik handiena da Esakoa, eta handitzeko lanak kontu **amaiezina**⁵ bilakatu dira: 22 urte igaro dira abiatu zituztenetik. Hasieratik izan dira polemikoak. Segurtasun arrazoiak argudiatuta, kontrako mugimendua handia izan da. **Pitzadurak**⁶ eta **luiziak**⁷ izan dira urteotan, eta horrek ezinegona sortu du inguruko biztanleengan. Are gehiago, urbanizazio pare bat ere hustu zuten duela hamar urte, eskuineko **hegaleko**⁸ lurra **higatu**⁹ egin zirelako. Gainera, obren arriskuaz ohartarazi dute hainbat txostenek. Halere, lanek aurrera jarraitu dute, sekulako gainkostuarekin bada ere: hasierako aurrekontua 110 milioi eurokoa izanik, 400 milioi euro baino gehiago gastatu ditu Espainiako Gobernuak orain arte.



1. Eten: gelditu.

2. Behin-behinean: provisionalmente (es), provisoirement (fr).

3. Gainezkabide: rebosadero (es), déversoir (fr).

4. Izapidetu: tramitatu.

5. Amaiezin: amaierarik gabea.

6. Pitzadura: grieta (es), fissure (fr).

7. Luizi: desprendimiento de tierra (es), glissement de terrain (fr).

8. Hegal: ladera (es), flanc (fr).

9. Higatu: erosionar (es), éroder (fr).

10. Jokamolde: portaera, jokatzeko era.

11. Ohi: ex (es), ex- (fr).

12. Goraipatu: alabar (es), louer (fr).

OMENDUA BOSTEKOA SARIA JASO DU JAGOBA ARRASATEK



Iruñerriko Komunikabideak Fundazioak (IKF) Bostekoa saria sortu berri du, *"euskarari ospea, bultzada eta ikusgarritasuna ematen dizkioten euskaltzaleen jokamoldea¹⁰ eskertzeko"*, eta Jagoba Arrasate futbol entrenatzailea izan da jaso duen aurrena. IKFk honela arrazoitu du lehen edizioeko saria Osasunako entrenatzaileari eman izana: *"Pertsona estimatua eta errespetatua da. Gizon umil eta normala, horretatik gutxi duen futbolaren munduan. Euskalduna eta euskaltzalea, Iruñera etorri zenetik euskaraz egin du, naturaltasunez: prentsurrekoetan, ekitaldi publikoetan, ospakizunetan. Bertsozale handia izanik, bertsoetan ere ikusi dugu Iruñeko udaletxean eta Gaztelu plazan, zalez inguratutik"*. Beraz, euskararekiko

konpromiso hori publikoki aitortu nahi izan dio Fundazioak Berriatukoari. Joan den hilean eskuratu zuen saria Arrasatek, solasa, bertsoa eta musika bildu zituen ekitaldian, eta taldeko Oier Sanjurjo kapitain **ohiaren**¹¹ ekarpena ere **goraipatu**¹² zuen eskerrak emateko hitzaldian.

berria fm

PODCASTA

Ziklo berria

**Kazetaritza
feminista**
erraietan
eta uhinetan

UXUE Rey

ANE

Eslaba

**Hamabostean behin, asteazkenez,
[Berria.eus/podcast](https://berria.eus/podcast) webgunean eta plataformetan entzungai.**

EUSKARA MANIFESTAZIO JENDETSUAREN OSTEAN, ESKAERA ETA PROPOSAMEN ZEHATZAK

Euskalgintzaren Kontseiluak deituta, azaroaren 4an dozenaka mila pertsona batu ziren Bilboko kaleetan euskara **biziberritzearen**¹ aurkako epaiak salatzen. Manifestazio oso

jendetsua izan zen, eta jendeak Kontseiluaren aurreikuspenen gainetik erantzun zuen, Kontseiluko idazkari nagusi Idurre Eskisabelek aitortu zuenez. Manifestazioaren balorazio positiboa egiteaz gain, euskararen normalizazioan aurrera egiteko "itun soziopolitikoaren premia" nabarmendu zuen Eskisabelek. Era berean, euskararen normalizazioa jasaten ari den oldarraldiari erantzuteko tresna aurkeztu du Kontseiluak: *Oldarraldiaren aurrean hizkuntza-eskubideak babesteko protokoloa*. Azken hilabeteotan, euskalgintzako eta hainbat sektoretako eragileekin garatu du, oldarraldiari **tokian tokitik**² eta bat eginda erantzuteko. Helbide honetan dago eskuragarri: www.kontseilua.eus/protokoloa.



BERTSOLARITZA NEGUAREN ATARIA³, FINALEN SASOIA

Hiru txapelketaren amaiera dakarte udazkeneko azken asteak. Azaroaren 18an, Taldekako Xilaba Txapelketako finala egin zuten Aiherran. Irantzu Idoatek, Nahia Sascok eta Ortz Idoatek osatutako *Hazparkek* irabazi zuen Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako txapelketa. Hurrengo bi hitzorduak, aldiz, **jokatze**⁴ dira. Abenduaren 2an, Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala izango da. Iruñeko Anaitasuna kiroldegian, honako bertsolari hauek bilduko dira: Saioa Alkaiza (egungo txapelduna), Julio Soto, Joanes Illarregi, Xabat Illarregi, Eneko Lazkoz, Josu Sanjurjo, Saats Karasatorre eta Sarai Robles. Azkenik, abenduaren 16an, 2023ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala Bilbao Arenan egingo da. Azken **finalaurrekoa**⁵ azaroaren 25ean zuten jokatzea, aldizkari hau inprimategian zegoenean. Ordurako, bi izen baino ez ziren jakinak: Xabat Gallettebeitia eta Jone Uria, beren finalaurrekoak irabazita finalerako zuzenean sailkatuak. Nolanahi ere, zorianak guztiei: hala irabazleei nola finalerako partehartu eta hartuko dutenei!

1. Biziberritu: indartu, sendotu.

2. Tokian tokitik: toki bakoitzetik, bakoitzak bere lekutik.

3. Atari: hasiera, hastapen.

4. Jokatzear: jokatze zorian, oso laster jokatuko dena.

5. Finalaurreko: semifinal (es), demi-finale (fr).

Pasaiako Udalak Mintzalagun egitasmoa saritu du

Pasaiako Mintzalagun egitasmoak Udalaren Bokale lantaldearen sari jaso du. Bokalek, alegia, Pasaiako Euskararen Aholku Batzordeak, herrian euskararen sustatzaileak izan diren ekimenak eta pertsonak saritzen ditu, eta aurtengo sariak Mintzalagun egitasmoa **bidelagun**¹ eta **bidelariei**² eta Pasaiako Gau Beltzaren antolatzaileei ematea erabaki du. Pasai Antxoko kultur etxean egin zuten sari banaketa, azaroaren 15ean, ehun bat lagun bildu zituen ekitaldian. Pasaiako Mintzalagun ekimena iazko ikasturtean jarri zen berriro martxan urte askoan geldirik egon ondoren. Udalaren dirulaguntzaz, Pasai Antxoko Txirrita AEK euskaltegiak antolatzen du (Praktikatu zerbitzuaren bitartez), udal euskaltegiarekin elkarlanean. Ikasturte honetan ere abiatu dira mintzalagun taldeak Pasaian. Oraingoan, 66 lagun biltzen dituzten 16 talde osatu dira, Pasai Antxoko gurasolagun taldea barne. Ekintza osagarriak ere antolatuko dituzte **aurrerantzean**³, talde txikiak elkartu eta parte-hartzaileen arteko harremanak **sendotzeko**⁴.



1. **Bidelagun:** *compañero, -a de viaje (es), compagnon, compagne de voyage (fr).*
2. **Bidelari:** *bidaiari, bidaia egiten duen pertsona.*
3. **Aurrerantzean:** *hemendik aurrera.*
4. **Sendotu:** *indartu, estutu.*

canalpc

informática

Bilbon Doctor Areilza, 33
(Indautxuko Metroa - Areilza irteera)
94 470 36 90

Astelehena-Ostirala: 9.30-14h / 16.30-20h
Larunbata: 10-14h

www.canalpc.es



zuzenean etxera

Tekniko zerbitzuak eta konponketak

94 474 62 50

Doctor Areilza 33
sal@canalpc.es



SARA ZOZAYA

MUSIKARIA

Zozayak (Donostia, 1995) *Nara* (Balaunka, 2023) bakarkako bere lehen disko luzea aurkeztu berri du, eta aurkezpen bira betean dabil, “oso gustura”. Lehendik, bi lan labur zituen argitaratuak. Bakarka hasi aurretik, bestelako proiektuetan lan egin izan du, Nerabe taldean, esaterako.

Musikaren munduan buru-belarri murgilduta dago: musikari eta abeslari izateaz gain, musika ekoizteko eta sustatzeko Gure Bazterrak enpresaren sortzaile eta kide da.

“Agertoki gaineko lanak arima betetzen dit, baina poltsikoa agertoki atzekoak”

Disko osoak badu nolabaiteko tonu malenkoniatsu¹ edo tristea.

Bai, guztiz. Nire musika guztiak badu ukitu hori pixka bat: nostalgia, iluna... Hala ere, era berean, ahotsaren goxotasunarekin iluntasun hori argira eramateko bidea irekitzen dut.

Oro har, oso intimoak dira zure abestiak.

Egia esan, bai. Aurreko lanetatik badago aldaketa; uste dut **arima**² gehiago ireki dudala, jendeak ikus dezan. Jauzi nahiko handia da. Hitzetan ikus daiteke: askoz gordinagoak dira, zuzenagoak. Disko honetan, aldaketa nagusi bat izan da hori.

Musikak zure egoera emozionala aldatzen duela entzun izan dizut. Zure musikak zure egoera emozionala islatzen du?

Nire musikan, kanta bakoitzak nire bizitzako une bat islatzen du, eta une hori oso lotuta dago emozio konkretu batekin. Hortaz, esan daiteke kanta horretan harrapatuta gelditzen dela, apur bat, baina ondoren, kanta horri bizia ematen diodan bakoitzean, abesten dudan bakoitzean, beste emozio bat ere lortzeko gai naiz. Hots, ez da erabat

harrapatuta geratzen, baina sinbolikoki-edo une jakin batean nuen emozio hura irudikatzen du.

Beraz, Nara Sara da?

Bai, erabat. Sararen parte edo Sararen bertsio bat izan daiteke.

Popa, post-rock tristea... nola definitu zure musika?

Ez da batere erraza. Nire ahotsak estilo aldetik dena lotzen du pixka bat, zeren, bai, genero dezente ukitzen baititut. Ez da batere erraza etiketa zehatza jartzea, eta askotan, gainera, hori egiteko eskatzen zaigu. Adibidez, Spotifyn eta, zure estiloa zein den markatu behar duzu, eta kostatzen zait. Askotan, pop, ambient, sad, rock, alternative... halako dezente jartzen dut, gauza askoren nahasketa dela uste dudalako.

Durangoko Azokan izango zara, Ahotsenean. Estreina aldia duzu?

Bakarka, bai. Beste proiektu batzuekin egon naiz, baina bakarka lehenengo aldia da. Beraz, han izango gara 8an, baita beste egun batzuetan ere diskoak saltzen.

Zer espero duzu?

Nahiago dut ezer ez espero; normalean, hobeto ateratzen zait dena horrela. Gainera, kontzertuari dagokionez, bi alderdi nahasten dira. Batetik, zaleak eta publikoa ikaragarri onak dira, eta dagoen giroa oso aproposa da kontzertu bat emateko, lasaia eta errespetuzkoa. Errespetua da gehienbat nabaritzen dudana. Baina, beste alde batetik, hainbesteko **jendetza**³ eta mugimendua dago, hainbeste talde, nahiko estresagarria izaten da. Hala, oso polita izan daiteke, baina teknikoki-eta ez da hain erraza. Beraz, indarrarekin joan behar dugu estres horri aurre egiteko eta plaza horrek ematen duen aukeraz gozatzen saiatzeko, kristorena da eta.

Oholtza gaineko eta oholtza atzeko lana ezagutzen duzu. Zerk betetzen zaitu gehiago?

Agertoki⁴ gaineko lanak arima betetzen dit, baina poltsikoa agertoki atzekoak. Hori da errealitatea. Azkenean, musikari izatea... Aurten konturatu naiz, gero eta gehiago, nolako inbertsioa eskatzen duen. Etengabe gastuak eta gastuak. Ondorioz, oso jende gutxi da gai honetaz bizitzeko, etengabeko inbertsioa delako: musika, bideoak, zuzenekoak... Oso zaila da, baina era berean arima betetzen dit, eta beti abesten jarraitu nahi dut. Hori da nire pasioa, eta nire le-

Di-da batean

Zerk alaitzen dizu eguna? Kafeak.

Eta tristatu? Goiz esnatu beharrak.

Zerk eragiten dizu barrea? Txiste oso-oso txarrek.

Eta negarra? Kantu on batek.

Zerk haserreazten zaitu? Zapalkuntzak, oro har.

Zerk harritzen zaitu? Denok gizakiak izanda, espezie berekoak, hain ezberdinak izatea.

Bizio bat? *El Conquis*.

Plazer txiki bat? Niretzat, denak dira handiak.

Eta sekulako plazer bat? Hamabi ordu jarraian lo egitea.

Zer izan nahi zenuen txikitan? Suhiltzailea.

Eta orain, zer ez zenuke izan nahi? Irakaslea.

Musikari bat? Anari.

Kontzertu bat? La Oreja de Van Gogh-en bat, Anoetako Belodromoan, 2000 eta oso gutxian. Ikusi nuen lehen kontzertua izan zen.

Non joko zenuke gustura? Zinema areto batean.

Lasai entzuteko musikari bat? Nils Frahm.

Eta dantzarako? J Martina.

hentasuna. Atzeko lan horrek **egonkortasuna**⁵ ematen dit, lana delako, eta, aldi berean, asko gustatzen zait beste artista batzuen bideak ikustea eta beste toki batetik gozatzea, agertokiaren atzetik. Pila bat gustatzen zait, eta uste dut horrek ere oholtzara ateratzeko motibazioa sortzen didala.

Emakumeak Oholtzara programan parte hartzen duzue Gure Bazterrak-ekin. Generoa oztupo da oraindik ere oholztan?

Bada oztupoa, gure gizartean sistematikoki txertatuta dagoelako. Beraz, musikan ere, beste arlo batzuetan bezala, matxismoa egon badago, eta berdintasunerako bidean pila bat dago egiteko oraindik. Hortaz, oztupoa da musikan, bai, toki guztietan bezala. ●

1. Malenkoniatsu: *melancólico, -a (es), mélancolique (fr)*.

2. Arima: *alma (es), âme (fr)*.

3. Jendetza: *jende pila bat, pertsona asko*.

4. Agertoki: *escenario (es), scène (fr)*.

5. Egonkortasun: *estabilidad (es), stabilité (fr)*.

Atal honetan, izenen jatorrian sakontzeko ahalegina egiten dugu, eta atearik parez pare zabalik ditugu zuen proposamenak jasotzeko. Horrenbestez, zuen izenaren jatorria edota esanahia jakin nahi badituzue, eskatzea libre!

Posta elektronikoa honetara idatzi besterik ez duzue egin behar: aizu@aek.eus. Bilatzen eta zuen eskura jartzen saiatuko gara, ezer agintzen ez badugu ere...



Igotz mendi bat da, Urregarai ere **deritzona**¹. Bizkaian dago, Aulesti udalerrian, Markina-Xemein eta Munitibar artean. 704 metro ditu, eta Santa Eufemia basiliza dago bertan, non erromeria egiten den irailaren 16an.

Kondairen arabera, bertako koba batean bizi zen Tartalo edo Ttartalo, euskal mitologiako artzain begibakar erraldoia (Greziako Polifemo, Asturiasko Ojancanu edo Girona Garaiko Becus-en antzekoa).

Igotz Mendi **zamaontzia**² ere famatua da historian: 1916an eraiki zuten Euskalduna ontzian (Abando), ikatza garraiatzeko. I. Mundu Gerran, alemanek bahitu zuten Madagaskarren. Etxera itzuli, eta Gerra Zibilean Eusko

Igotz

Jaurlaritzak baliatu zuen. 1939an, agintari frankistek *Monte Mulhacen* bataiatu zuten... Azkenik, 1969an desegin zuten, jaioterrian.

Igotz, bestalde, Aita Santi Onaindia Baseta apaiz, itzultzaile eta idazlearen ezizenetako bat ere izan zen. 1909an jaio zen Amoroton, baina Markinan ikasi zuen tarte batez eta, ziur aski, inguruko mendian **kausitu**³ zuen goitizena. Itzasantzia bezala, gerran ibili zen, euskal gudarien **kapilau**⁴ (eta ostean, hiru urtez presondegiatan).

Egun, 99 Igotz daude Hego Euskal Herrian, Bizkaian gehien bat (kopuruan zein proportzioan). Batez beste, 25 urte eta erdi dute.


1. **Deritzo**: *deitzen da*.
2. **Zamaontzi**: *carguero (es), cargo (fr)*.
3. **Kausitu**: *aurkitu*.
4. **Kapilau**: *capellán (es), chapelain (fr)*.

27 EUSKAL[®] DENDA

2023 Abenduak 6-10

Durangoko Azoka Plazan

Euskal Herriko Artisautzaren Azoka



GURE ARTISAUTZAREKIN DUGUN ZITAI

facebook.com/arbaso

www.euskaldenda.info

ORDUTEGIA

11:00-14:30 / 16:30-20:30



“Goi mailak dirua dakar, baina rokodromoetan eta lehiaketetan joango da”

ENEKO ETA IKER POU (Gasteiz, 1974 eta 1977) anaiak ez dute aurkezpen handirik behar. Lau Elementuak egitasmoa burututa, udaberrirako liburua eta dokumentala prestatzen harrapatu ditugu eskalatzaileak, **joan-etorri**¹ batzuk tarteko, jaioterriko berdegune lauetan.

1. **Joan-etorri**: *bidaia*.

Bost urte iraun duen proiektua amaituta, orain zer?

Iker: Hiru urtean egiteko asmoa geneukan, baina pandemia etorri zen. Halere, bukatu dugu, eta hori da garrantzitsuena. Orain, ideia da udaberrirako liburua eta dokumentala ateratzea, ea lortzen dugun. Espero dezagun baietz...

Eneko: Liburua eta dokumentala formatu zaharrak dira sare sozialen garaietan, baina guri asko gustatzen zaigu irakurtzea. Gainera, geuk egingo dugu, lehenengo liburua bezala, eta horrek meritua dauka, jada jende gutxik egiten duelako. Gure kontuak geuk egitea gustatzen zaigu, mendian ibiltzen garen bezala, sherparik gabe. Irudietako asko geuk grabatuak dira, eta dokumentalaren muntaketa geure kamerari Jordi Cañigueralekin egingo dugu, hiruror artean.

Erabaki duzue zein izango den hurrengo egitasmoa?

E: Ez da erraza, denbora behar da. Gure ezaugarri nagusia gauzak asmatzea da. Jende asko joaten da zortzimilakoetara, duela urte asko irekitako bideetatik. Guk mendi "anormalak" bilatzen ditugu, bideak irekitzeko. Irudimen handia behar da, eta orain hausnarketa une horretan gaude. Ez da berdina, baina artearekin **alderatzen**¹ dugu batzuetan: Van Gogh eta Picasso bakarrik izan ziren sekulako obrak egiten, baina badago lan original horiek birkopiatzeko gai den jendea. Hau da, badago zuk egiten duzuna kopia dezakeen jendea, baina zuk egiten duzuna egitea askoz zailagoa da.

Finantziak ere zuek bilatzen duzue?

I: Bai, eta Cañigueralek ere laguntzen digu. Den-dena egitea ez da erraza, eskalatzea baino askoz zailagoa da. Hori da gustatzen ez zaigun zatia.

“GUK MENDI
‘ANORMALAK’
BILATZEN DITUGU,
BIDEAK IREKITZEKO”

“MARKEK EZ DUTE
MENDIZALEEKIN
PARTEKATZEN
MENDIAN MUGITZEN
DEN DIRUA”

“BABESLEEK, ORO
HAR, EZ DAKITE
GAUZA HANDIRIK, EZ
DAKITE ZER ARI
DIREN BABESTEN”

“EZ DITUGU INOIZ
SALDUKO GURE
USTEZ ONAK EZ
DIREN MENDI
PROIEKTUAK”

“HELBURUA EZ
LORTZEAK KOLOKAN
JAR LEZAKE
HURRENGO URTEKO
AURREKONTUAREN
ZATI HANDI BAT”

“ROKODROMORA
JOATEA GIMNASIORA
JOATEA BEZALA DA
EGUN”

E: Kirolari hutsak bagina, entrenatzea bakarrik izango litzateke, **gainerakoa**² beste baten esku utzita, baina gure munduan ez da hori gertatzen. Batetik, txarra da, kirol jardunari denbora kentzen diolako, baina maila pertsonalean askoz interesgarriagoa bihurtzen zara, gauza asko egiten dakizulako. Horrek pertsona gisa ere hezten gaitu.

Goi mailako kirolariak izan arren, babesleak bilatzea eta eskaladatik bizitzea ez da erraza izango...

I: Ez, 20 urte daramagu maila profesionalen eta ez da erraza mantentzea. Orain helduagoak gara, esperientzia gehiago daukagu, agian gauza politagoak egin ditzakegu, baina jendearentzat zaharrak gara, jendeak beti nahi ditu gauza eta aurpegi berriak ikusi. Originala izan behar duzu, gauza berriak egin... Halere, gure motibazioa mendia da eta ez dugu lan moduan ikusten, gure afizioa ere badelako, biak **tar-tekatzen**³ dira.

E: Mendian gero eta diru gehiago mugitzen da, baina markek ez dute mendizaleekin partekatzen. Guk ez dugu inolako interesik aberatsak izateko, guk mendira joan nahi dugu. Gure mailako txirrindulari batek 4-6 milioi euro irabaziko ditu egun. Futbolaria, askoz gehiago. Mendizalea ez da ailegatzen, kasu gehienetan, exekutiboaren soldatara, eta enpresetan exekutibo asko daude. Gure bizimodua ez dabil diruaren inguruan, baina behar dugu laguntza hori, espedizio batzuk oso-oso garestiak direlako. Artikora, Antartikara edo Himalaiara joatea dirutza da.

Babesleek gero eta erronka zailagoak eskatzen dituzte?

I: Ez, geuk ezartzen ditugu helburuak eta geuk erabakitzen dugu nora joan, baina saiatzen gara proiektua erakargarria izan dadin, babesleak lortzeko. Babesleek, oro har, ez dakite gauza handirik. Egitasmoa ondo saltzen badiezu, parte hartzen dute, zer babesten ari diren jakin gabe. Horrelako kasu

ugari ikusten dugu eta, mundu hau ezagututa, barregura ere ematen digute.

E: Urteak pasa **ahala**⁴, bizitza oso azkar doala konturatu gara. Guretzat hau pasioa da, mendiarekiko grina, eta ez daukagu galtzeko denborarik. Hortaz, ez ditugu inoiz salduko gure ustez onak ez diren mendi proiektuak, ez dugu inoiz egin. Bizitza bakarra daukagu eta aprobetxatu egin behar da. Gaur egun, ordea, irudia benetakoa baino askoz garrantzitsuagoa da. Pena da gizartea hortik joatea, baina guk oso argi dugu gauza autentikoak interesatzen zaizkigula.

Nola daramazue istripu larriak izateko arriskua?

I: Lagun piloa ikusi dugu joaten, urtero. Gero eta gogorragoa da urteek aurrera egin ahala, oso hur-biletik ikusten dugulako gurekin eskalatu izan duen jende asko jada ez dagoela hemen. Baliteke horrek buru pixka bat gehiagorekin ibilaraztea, baina beldurrez, ez ginatete joango. Eskalada mugitzen gaituen pasioa da. Badakigu arriskua hor dagoela, baina ez dakigu etxean ezer egin gabe egoten. Hori irakatsi digute, mendian borrokatzea gustatzen zaigu, eta hori da gure bizitzaren motorra.

E: Jendeak askotan pentsatzen du horrela gabiltzanok ez dugula bizitza maite, baina guztiz kontrakoa da. Azken batean, bizimodu hau bizirik sentiarazten gaituelako bilatzen dugu. Ez dago mendian hil nahi duen mendizalerik, baina guztiok hilko gara. Bizitza hasi eta bukatu egiten da, eta norberak aukeratu behar du ibilbide hori nola egin.

Baldintza egokirik ezean, oso zaila da etsitzea⁵ helburua lortzeaz duzunean?

I: Helburutik 50-100 metrora egonda, atzera egin edo jarraitu, hori da erabaki zailena. Jakin egin behar da noiz etsi edo noiz hartu arriskua, horrelako uneetan gertatzen dira istripu gehienak. Burua hotz izan behar duzu, baina oso zaila da. Eta espedizioaren arabera, are zailagoa.

1. Alderatu: *konparatu, erkatu.*

2. Gainerako: *beste guztiak.*

3. Tartekatu: *intercalar(se) (es), s'intercaler (fr).*

4. Ahala: *a medida que (es), à mesure que (fr).*

5. Etsi: *amore eman, gehiago saiatu ez.*



E: Norberaren egoak ere jokatzeko du hor. Baita atzean egon daitekeen presioak ere. Profesionala izanik, babesleek agian ez dute presionatuko, baina aurrera ez egiteko kolokan jar dezake hurrengo urteko aurrekontuaren zati handi bat. Gogoratu behar da mendizale baten ibilbidea oso luzea izan daitekeela eta, erronka aurten betetzen ez bada, hurrengo urtean bete daitekeela. Halere, bi hilabete espedizioan, adibidez, latza da erabakia hartzea.

Eta baldintza egokien zain, kanpin dendan sartuta, zertan pasatu denbora?

I: Liburu piloa eramaten dugu irakurtzeko, musika entzun, mediatu... Ez gaude ohituta horretara: etxean gaudenean, beti dago gauza ugari egiteko eta oso azkar ibiltzen gara; hortaz, espedizioak urteko lasaitasun tar-teak ere badira guretzat. Gogorra da kanpinean egon beharra, baina askotan eskertu egiten dira une horiek erabat deskonektatzeko, nahiz eta batzuetan luzeegiak izan.

E: Errutina ere bilatzen dugu. Goizean ordu jakin batean esnatu, flexio batzuk egin fisikoki mantentzeko, kanpalekuan presarik eta Internetik gabe egon... oso polita da!

I: Eta partxisa, xakea... denetik eramaten dugu, kar-kar!

Adinean aurrera, hitz egiten duzue uzteko momentuaz?

E: Oraingoan, gure B plana da A planarekin jarraitzea. Horretan asko pentsatzen hasiz gero, azkenean burua ez dago egon behar duen lekuan, eta ez dugu hori nahi. Oraindik indartsu ikusten dugu geure burua, motibazio handiarekin. Beraz, jarraitu egingo dugu. Jendea azken 25 urteotan dabil gu jubilatzen, baina zerbait maite baduzu eta horren bila bazoaz, gauzak atera egiten dira.

Tokion eskalada Olinpiar Jokoetan sartzea ez zen zuen gustukoa izan...

I: Rokodromokoa beste modalitate bat da, ez dauka zerikusirik mendiko eskaladarekin, biak eskalada izan arren. Gu ez gara lehiaketatan ibiltzen, eta orain rokodromoetan dabiltzan onenak ia ez dira mendira joaten. Rokodromora joatea gimnasia joatea bezala da egun. Guri pena pixka bat ematen digu, baina nahi duenak hortxe dauka beste modalitate bat. Txarrena da gazte gehienek horretara jotzea. Beharbada, hobe mendiarentzat, orain jende gutxiago dabilelako bertan, kar-kar!

E: Gure kirolaren arima mendia da. Guk dagoeneko

adin bat daukagu, baina mendian oso lan ona egiten ari den jende gazteak ez dauka inongo laguntzarik. Saillakapenak egiten dituzten lehiaketak daudenez, laguntza guztiak horra joango dira.

Alde onen bat ere izango du...

I: Bai, eskalada modan jarri da. Sekulako rokodromoak egiten ari dira, gero eta gazte gehiago hasten da... Olinpiar Jokoek eskalada mapan jarri dute kirol moduan, baina agian Alberto Ginesek irabazi zuelako. Hala izan ez balitz, igual beste zerbaitez ariko ginatke hizketan. Alde horretatik, ona da, baina mendiarekiko asko galtzen da.

E: Lagunduko du eskalada kirol gisara hobetzen, entrenatzaile onak egongo direlako, entrenatzeko plan-gintzak... Goi mailak dirua dakar, kirolak gorantz egitea, baina rokodromoetan eta lehiaketetan joango da. Ziur mendira ere helduko dela zerbait, baina ez hainbeste, eta oso pixkanaka.

www.hermanospou.com



Urrezko Pioleterako hautagaien artean egon zarete, eta ez lehenengo aldiz...

E: Kar-kar! Guk **izendapen**¹ horiek erabiltzen ditugu jendeak hortxe gaudela uler dezan. Mendian ez dago ez lehiaketarik ez saillakapenik, baina hori da gure alorreko sari nagusia. Hortaz, jendeak bosgarren aldiz proposatu gaituztela irakurtzen badu, maila ona dugula ulertzen du. Nahikoa dugu hori, saria berdina zaigu. Gure saria, azkenean, gus-tatzen zaigunaz bizitzea da, mendira joatea, espedizioak egitea, emanaldietara etortzen den jendearen maitasuna... Eman izan baligute, primeran! Oso piolet polita edukiko genuke, **galdategira**² eramateko ere, kar-kar! ●



KOLKOTIK

1. Izendapen: *nominación (es), nomination (fr).*

2. Galdategi: *metalak urtzeko lan-tegia.*

Euria ari du. Mendira ala rokodromora? Iker:

Mendira. **Eneko:** Biak. Mendian korrika pixka bat egin eta gero rokodromora.

Eskaladak daukan gauza on bat. Iker: Lagunak.

Eneko: Naturarekiko harremana.

Eta txarra? Iker: Lehiakortasuna. **Eneko:** Bai, nire ustez, ere bai.

Gustura eskalatuko zenuketean eraikin ezagun bat. Iker: Guggenheim Museoa, polita da. **Eneko:**

Bai, ados!

Kanpoan egonda, etxeko zeren falta nabaritzen duzue? Iker: Amaren janariarena. **Eneko:** Bai, eta gurasoekin egotearena.

Eta etxean zaudetenean, kanpoko zerena? Iker: Lasaitasunarena. **Eneko:** Baita ere, berdin-berdin!

Zerk galarazten dizue loa? Eneko: Estresak, betebeharek... Batzuetan, gaur egungo gizartea azkarregi doa. **Iker:** Bai, berdin! Beti daukagu zeregin piloa.

Zerk ematen dizue beldurra? Eneko: Lesio larri

bat izan eta mendira joan ezinik geratzeak.

Iker: Bai, egiten ari garena egiten jarraitu ezin izateak.

Amorrua? Eneko: Gaur egungo gizarteak hartu duen bideak: askoz garrantzitsuagoa da irudia egiten dena baino. **Iker:** Jendea gezurretan ibiltzeak, eta gero eta jende gehiago dabil.

Euskara ikasteko arrazoi bat. Eneko: Oso hizkuntza polita da, eta milaka urte ditu.

Mantendu egin behar dugu. **Iker:** Bai, mantendu behar dugu!

Zer ikusten duzu ispiluaren aurrean jartzen zarenean? Iker: Gero eta helduagoak garela,

kar-kar! **Eneko:** Hori, alde batetik. Eta, bestetik, borrokalari bat.

Iker, nolakoa da Eneko? Bada, asko pentsatzen ditu gauzak, oso ideia onak izaten ditu, eta langilea da.

Eta nolakoa da Iker, Eneko? Ekintzako pertsona. Oso ona egiten dituen gauzetan, jenioa.

23. Korrika

Badator! 2024ko martxoaren 14tik 24ra, Irundik Baionarat egingo du 23. Korrikak. Euskararen aldeko mobilizaziorik jendetsuenak Euskal Herriko errepide eta bazterrak jendez beteko ditu, euskararen eta AEKren alde lasterka. Hona hemen 23. Korrikaren **gako**¹ nagusiak, labur-labur.

HARRO HERRI

11 egunez, Korrikak herri oso baten, euskararen herriaren, **harrotasuna**² erakutsiko du: euskal komunitateak euskararekiko sentitzen duen harrotasuna. Horixe jaso nahi izan du 23. Korrikaren leloak: *Harro Herri*. Euskarak eta euskaraz bizi nahiak jasaten dituzten traba eta erasoen aurrean, oztopo guztiak gainditzeko gai den herri harroa garela erakusten du, bi urtean behin, Korrikak: *"Egon gaitezen harro garenaz eta egiten dugunaz. Bete ditzagun etxe eta kaleak euskaraz. Harro plazan, online zein kanpoko bizitzan. Harro herri eta harro Korrikan!"*. Hori bai, harrotasuna konformismoarekin nahasi gabe eta herriaren ahaleginari erakundeen ardura gehituta, hizkuntza-politika ausartagoak eta inbertsioak eginda.

OMENDUA

Azterketak Euskaraz kolektiboa omenduko dute 23. Korrikan. Hau da, Ipar Euskal Herrian, Frantziako legeei aurre eginda, **baxoa**³ eta **brebeta**⁴ euskaraz egiteko borrokan aritu eta ari diren ikasleak, guraso eta irakasleen laguntzarekin. Korrikak aldarrikatzen duen ahaleginaren adibide da borroka hori. Ane Elordi Alburquerque Korrikaren koordinatzaile nagusiak azaldu bezala, *"gazte hauek, beren ikasketen une oso **erabakigarrian**⁵, herritar euskaldun gisa dagozkien hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko hautua egin dute, beren notak eta etorkizun akademikoa kaltetuak izango direla jakitun"*. Hala, omenaldiaren bitartez, haien egoera gehiago ezagutarazi nahi da.

HITZ**gu****txi****tan**

1. **Gako:** *clave (es), clef (fr).*

2. **Harrotasun:** *orgullo (es), fierté (fr).*

3. **Baxo:** *Frantzia, bigarren hezkuntza amaitu eta goi mailako ikasketak hasi aurretik egin beharreko azterketa.*

4. **Brebeta:** *Frantzia, bigarren hezkuntzako lehen zikloaren amaieran egin beharreko azterketa.*

5. **Erabakigarri:** *decisivo, -a (es), décisif, -ive (fr).*

6. **Aldiro-aldiro:** *une oro, etengabe.*

7. **Pasarte:** *paragrafo, atal, zati.*

NOLA LAGUNDU?

Korrikari laguntzeko makina bat modu dago: antolaketan arituz, diru ekarpena eginez, Korrika babestuz... Nolanahi ere, zutabe nagusietakoa Korrika Laguntzailea da. Hamabost euroren truke, pina, txartel birtuala eta makina bat abantailaz gozatzeko aukera eskuratzen dira. Ez nolanahikoak! AEKren euskalategi eta barneketan beherapenak, Korrikaren online dendan deskontuak, astero zozketa ugari laguntzaileen artean... baita AIZU! merkeago eskuratzeko parada ere! Gainera, **aldiro-aldiro**⁶, abantailen zerrenda handitu egingo da. Aurten, estreinakoz, txartela birtuala da, eta Korrikaren telefonorako aplikazioan izango dute laguntzaile egiten direnek. Horretarako, *korrika.eus* gunera jo.

ERREPIDEAN ETA SAREAN

Errepidetik sarera ere aspaldi egin zuen jauzi Korrikak. Modu askotan, gainera. Hortxe dago *korrika.eus*, bai iristear den Korrikari bai aurretik egindako guztiei buruzko informazioa biltzen duen webgunea. Bertan dago, halaber, Korrikaren online denda, jada martxan. Webguneaz gain, Korrika aplikazioa ezinbestekoa da. Doan deskarga daiteke, eta honek ere Korrikari buruzko informazio ematen du: albisteak, ibilbidea, Korrika zuzenean jarraitzeko aukera... baita, aurreko **pasartean**⁷ aipatu bezala, Korrika Laguntzaileen txartel birtuala. Horrenbestez, aplikazioaren bitartez gozatu ahal izango dira txartelaren abantaila ugariak.



MARKENTZAKO
ZERBITZUAK



KOMERTZIALIZAZIOA
ETA PUBLIZITATEA



SERIGRAFIA



IMPRIMATZE
DIGITALA



BINILOA



C/ BIARRITZ N°5
48002 - BILBAO

94 410 04 49

INFO@BILBOTEX.COM

WWW.BILBOTEX.COM



Arautu behar al da edari energetikoen salmenta gazteen artean?

Edari energetikoen kalteak onurak baino gehiago direla erakutsi dute ikerketa batzuek, tentuz hartu beharreko hainbat osagai dituztelako. Kafeina eta azukrea, esaterako. Haatik, eta publizitatearen eraginez, batik bat, gazteen artean arrakasta handia dute. Horrenbestez, zenbait administraziok gazteen artean halako edarien salmenta arautzea erabaki du. Galiziako Xuntak tabakoaren eta alkoholaren pare jarri nahi ditu edariok. EAEn eta Nafarroan, gaia aztertzen ari dira. Gazteei edari energetikoak saltzea arautuko zenuke?

MENDAROKO AEK-KO B2-C1 MAILAKO TALDEA

Produktu hauek ez dira debekatu behar. Gaur egun, alkoholaren kontsumoarekin gertatzen den bezala, debekatuta egon arren, lortzeko aukera izango dugu. Nagusiago bati deitzea aski da nahi beste botila lortzeko.

MARKEL NARANJO

Edari horiek erosteko adina mugatua egon beharko litzateke. Adina 18 urtetan jarriko nuke, alkohola bezala. Hau erregulatzeko era bat, edari hauek erosteko orduan gurasoen baimena izatea da.

KAIET SALEGI



Nik uste dut edari hauen konposaketa aldatu beharko litzatekeela. Horren kaltegarriak diren osagaien kantitatea murriztea. Era horretan, geure buruarekiko kalte ordaina, ez zen izango horren altua.

ASIER ALONSO

Nire ustez, 16 urtetik gorako pertsonek erosteko aukera izan behar dute. Azken finean, adin horretatik gorakoek, produktu horiek eragiten duten kalteen inguruko kontzientzia eduki beharko lukete.

JULEN IRIONDO

Nik ez ditut edan, baina entzun dudanez, onura baino kalte gehiago ditu. Hala eta guztiz ere, ez zait iruditzen aproposa hauen kontsumoa debekatzeko, edatearen joerak berdin jarraituko duelako. Gustatuko litzaidake, kontzientzia piztu ahal izateko, informazio jardunak antolatzea, hala nola, eskoletan, kafean, etab.

ANTTON IGERATEGI

Nik produktu hauek erosteko adina igo egingo nuke, 18 urtetara. Edari hauek azukre asko dute eta kaltegarriak dira osasunerako. Gainera, ez dakigu etorkizun batean izan ditzaketan eraginak, ez baitaude epe luzera frogatuak.

CRISTINA ORTEGA

Ez da hain fazila

Bidali zuen zalantzak, guztiok aberastuko gara eta.

AIZU! • Ez da hain fazila

Iztueta kalea 3, behea. 20001 DONOSTIA

Posta elektronikoa: euskaratu@aeek.eus

Ale honetan hainbat kontu argitzen jarraituko dugu.

(*) Asteriskodunak gaizki daude, jakina.

galde **d**ebalde?



Kaixo, euskara irakaslea naiz, eta ikasle baten galderak zalantza eragin zidan; honako honek, hain zuzen: "2023. urtean, 1988. urtean, 2056. urtean... halakoak ondo daude?". Hau da, zuzena da urteari "garren" eranstea? Ala urteak zenbakia bakarrik behar du, eta "2023 urtea" litzateke zuzena?

Egia esatera, denetarik ikusten da hor zehar: "2023. urtea", "2023 urtea", "2023 Urtea", "2023.urtea"... Hortaz, zure galderak erraza badirudi ere, bistan da mundu guztiak ez dituela irizpideak argi.

Erantzun zehatz bezain laburra emateko, *EBEra (Euskara Batuaren Eskuliburua)* jo dugu. Hauxe dakar, "data nola eman" epigrafearen barruan:

"Datari dagokion urtea idaztean, ez da erabiltzen -garren atzizkia (ez letraz eta ez puntuaz), *salbu urte kopuruaren ondoren urte hitza idazten denean* (eta orduan, nahitaez). Adibidez, 1982an (*1982gn, *1982gn., *1982.ean, *1982garren), 1952an, 1952. urtean (*1952.ean), 1664ko udaberrian, 2001eko abenduaren 13an...

- Milatik gorako urteak punturik gabe idazten dira, digitu guztiak elkarrekin lotuta, tartean hutsunerik utzi gabe: 2008ko iraila (*2.008ko iraila, *2 000ko iraila), 1945ean (*1.945ean).



Beraz, bi modu zuzen daude:

- 2023an bizi gara
- 2023. urtean bizi gara

Eta, horrexegatik, okerrak dira hauek biak:

- *2023.ean bizi gara
- *2023 urtean bizi gara



Nola deklinatu behar dira, partitibo kasuan, -tz bukatzen diren izen arruntak? Adibidez, eskutitz eta hilotz: eskutizik ala eskutizarik? Hilotzik ala hilotzarik?

Kontu horri 1994an (edo 1994. urtean) eman zion erantzuna Euskaltzaindiak, bere 15. arauaren bidez: https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0015.pdf.


Funtsean, bi argibide nagusi eman zituen gure akademiak:

- 1) Partitiboaren marka lotzen zaienean, mugagabea izan behar dute izen sintagmek.
- 2) Partitiboak pluralik gabeko komuntadura egiten du aditzarekin. Azken batean, nik esaten badut lagunik ez dudala, nire egoera tristea izateaz gain, horrek esan nahi du adiskide bat bera ere ez dudala (alegia, o lagun), eta ez da oso logikoa o zenbakiarekin plurala erabiltzea (nahiz eta gaztelaniak horrela jokatu: "No tengo amigoS/aS").

Beraz, zure adibideetara etorrira, *eskutitz* eta *hilotz* erabili behar dira partitiboa eraikitzeko, honela: *eskutizik* eta *hilotzik*; gainera, aditz singularra eskatzen dute. Adib.:

- *Aspaldi honetan, ez dut jaso ez postalik ez eskutizik; fakturak besterik ez dut jaso (besterik ere partitiboa da, ez ahaztu)*
- *Guda zelaian ez zen hilotzik ere geratu: gertuko jendeak erabat arpilatu zuen gunea.*

Idatzi hitz bakoitza dagokion tokian.
Gaia: ARABAKO HERRI BATZUK.



4 HIZKI

LEZA
OION
ZUIA

5 HIZKI

AIARA
AÑANA
BURGU
EKORA

6 HIZKI

GAUBEA
HARANA
KRIPAN
LAGRAN
LAUDIO
MOREDA
OKONDO

7 HIZKI

AGURAIN
AMURRIO
ARAMAIO
ARMIÑON
BASTIDA
BERNEDO
GASTEIZ
GUARDIA
KANPEZU
LEGUTIO
MAÑUETA
TREBIÑU

8 HIZKI

DULANTZI
ELTZIEGO
ELVILLAR
LANTARON
ZAMBRANA
ZIGOITIA

9 HIZKI

ARGANTZON
ASPARRENA
BARRUNDIA
KUARTANGO
LANTZIEGO
NAVARIDAS
SAMANIEGO
ZALDUONDO

10 HIZKI

ARTZINIEGA
URIZAHARRA
VILLABUENA

11 HIZKI

DONEMILIAGA
URKABUSTAIZ

12 HIZKI

BERANTEVILLA

14 HIZKI

ERRIBERABEITIA
ERRIBERAGOITIA

Hiztegia erotu egin zaigu, lagunduko al diguzu hitzak dagozkien definizioekin lotzen?

- | | |
|-----------|---|
| OSTRUKA | 1. Abere hilak jaten dituen hegazti harrapari handi. |
| TXIMINO | 2. Tortilla egiteko arrautzak ematen dizkigun hegazti. |
| SATOR | 3. Gazta izugarri gustatzen zaion ugaztun txiki karraskari. |
| SAI | 4. Dagoeneko kobazuloan lo dagoen ugaztun handi eta orojale. |
| HARTZ | 5. Zuhaitzetan buztanetik zintzilikatzen den primate. |
| SUGANDILA | 6. Hegan ez, baina korrika ibiltzen den hegazti handi. |
| UNTXI | 7. Muskerraren antza daukan narrasti txiki eta berde. |
| OILO | 8. Urte piloa betetzen duen animalia oskoldun. |
| DORTOKA | 9. Antzina, magoak kapelatik ateratzen zuen animalia. |
| SAGU | 10. Lurpean zuloak azazkalez egiten dituen ugaztun txiki erdi itsu. |



Letra Zopa


JAKI BATZUK



atsotitza 0 satu



Irudi bakoitzaren izena dagokion lekuan jarrita, atsotitz bat irakurriko duzu.



hitz katea



Lerro batetik bestera hizki bakar bat aldatuta, lehen hitzetik seigarrenera helduko zara. Errazago iristeko, laugarren lerroko hitzaren definizioa duzu.

4. Bi gauza elkarri itsasteko erabiltzen den gai.

1	K	A	T	E
2				
3				
4				
5				
6	N	O	R	A

Sinonimoak ezkondu

Sinonimoak ezkondu, ea asmatzen duzun nor den alargun bakarra.

HOZKADA

HODI

BENETAN

AUSIKI

BARATZE

ZIKOITZ

HITZONTZI

EGIAZKI

ZEKEN

LUPETZ

BASA

TRABA


INGURU

KALAKARI

TUTU

ORTU

OZTOPO



egia ala gezurra

Aldizkaria irakurri ondoren, esaguzu honako esaldiak egia ala gezurra diren.

1. Pou anaiek oso erraz erabakitzen dute zein izango den hurrengo egitasmoa. e g
2. Pou anaiek ez dute hurbil ikusten beren kirol ibilbidearen amaiera. e g
3. Durangaldeko mendirik garaiena Urkiolamendi da. e g
4. Urkiola gainean dagoen ostatu edo benta ezagunenak Pol-Pol izena du. e g
5. Aldudarrak elkarte ari da *Perkainen itzalean* izeneko dokumentala egiten. e g
6. Juan Martin Inda *Perkain* pilotariari buruz soilik mintzo da *Perkainen itzalean* dokumentala. e g
7. 23. Korrikak Irundik Baionarat egingo du, martxoaren 4tik 14ra. e g
8. Korrika Laguntzaileek Korrika aplikazioan izango dute laguntzaile txartel birtuala. e g
9. Durangoko Azokak erosketak online egiteko aukera emango du aurten ere. e g
10. Durangoko Azokako AIZU!-AEK erakusmahai euskarazko hiztegiak egongo dira. e g

♈ ARIES martxoak 21-apirilak 20

Augurio ugariak aurreikusten dutenez, uste baino lehen iritsiko da zera esango diguten eguna: "Euskara denona da, baita gorrotatzen dutenena ere".

♉ TAURUS apirilak 21-maiatzak 20

Dantzari bikaina zarelako, Korrikan Harro Gerri izango omen zara. Bada, horren dantzari ona bazara ere, euskaltegian alperreoa egiten duzu perreoa baino.

♊ GEMINI maiatzak 21-ekainak 20

Kafetxo, katutxo, osteratxo, bileratxo... -txo etengabe erabiltzen dutenek txoro eta txotxolo hitzak ere txo-z idazten direla gogoratu beharko lukete.

♋ CANCER ekainak 21-uztailak 20

Euskaltegian, ikasle saiatua zara. Beti jakin-minez, beti galdezka: zergatik hau, zergatik bestea? Ergatiboa erraz ikasiko duzu, oso zergatiboa zarelako.

♌ LEO uztailak 21-abuztuak 20

Badator Durangoko Azoka, eta, bista ona eduki arren, betaurrekoak jantzi dituzu, kultureta itxura izateko. Aizu, pastazko betaurrekoak, Ruperrenak nahikoak!

♍ VIRGO abuztuak 21-irailak 20

Ea: Olentzerok gauzak ekarri egiten ditu, ez eraman. Beraz, ezin diozu eskatu Gabonetako otorduetan hain gogai-karria den koinatua ikatzaren zakuan sartuta eramateko.

♎ LIBRA irailak 20-urriak 21

Diozunez, Durangoko Azokan txistorra, San Tomas egunean opariak eta Gabon gauean liburuak izango dituzu. Hau kaka nahastea! Onena, oporrak hartzea.

♏ SCORPIUS urriak 20-azaroak 21

Konturatu behingoz: Olentzero ez da existitzen, Abiadura Handiko Trenaren obra amaiturik edo mariatxirik gabeko ETBrik existitzen ez den moduan.

♐ SAGITTARIUS azaroak 20-abenduak 21

Ingurukoak jasateko, Olentzerori pazientzia eskatu diozu. Oso historiazalea zarenez, gogoratu Frantziako Iraultza: zergatik ez eskatu gillotina bat?

♑ CAPRICORNUS abenduak 20-urtarrilak 21

Kontuz! "Irakasle berdina dugu" esaten duzun bakoitzean, euskaltzain bati galtzetin bat erortzen zaio patioan behera arropa zintzilikatzen ari denean.

♒ AQUARIUS urtarrilak 20-otsailak 21

Urtero eskatzen diozu Olentzerori C1 titulua, baina inoiz ez dizu ekartzen. Jakizu: Olentzero ez da existitzen, existitzen den bakarra zure aurpegi gogorra da!

♓ PISCES otsailak 20-martxoak 21

Irakurri berriz 23. Korrikari buruzkoak: Harro Herri leloak ez du esan nahi Korrikan txandala eta zapatak jantzita parte hartzeagatik harro egon behar duzunik.

Logika jokoa 1+1=2

Bost lagun hauek gradu ikasketak egiten ari zirela ezagutu zuten elkar. Urtean behin gelditzen dira bazkari ederra egiteko eta garai haiek gogoratzeko. Asmatu nongoa den bakoitza, zer ikasi zuen eta zer eskatzen duen beti jateko.

IZENA	JAIOTERRIA	IKASKETAK	JANARIA

1. Garazi zarautzarraren eta ingeniariaren artean eseri da. Ingeniariaren ezkerrean, irakasle laudioarra dago, haragia jaten.
2. Zarautzarrak ez du ez pasta ez arroza eskatzen. Joneri ere ez zaio arroza gustatzen.
3. Mikel ez da Kanboko, eta gipuzkoarrak kazetaritza ikasi zuen.

4. Liherrak tafallarra dauka eskuinean; ezkerrean, berriz, Kanboko abokatua, arraina jaten.
5. Irune medikua ez dago Barakaldoko Joneren ondoan. Garazi Lapurdin jaioa da; Liherrak, osterak, Gipuzkoan.
6. Kazetaria barazkijalea da. Kanboko lagunaren eskuinean dago eserita.

hamazazpi baietz!

1. Zer da HAAE?

- a) Herri Abokatu Euskaldunen Elkargoa
- b) Helegite Arauak Ebazteko Epaimahaia
- c) Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea

2. Oskar Alegria zinemagileak bere hirugarren film luzea aurkeztu zuen, urrian, Valladolideko (Spainia) Seminci zinema jaialdian, eta dokumentalik onenaren saria jaso zuen. Nola izena du lanak?

- a) *Zinzindurrunkarratz*
- b) *Zumiriki*
- c) *Emak Bakia baita*

3. Zein izan zen Nafarroako Erresumako azken hiriburua?

- a) Baigorri
- b) Donapaleu
- c) Donibane Garazi

4. Nola amaitzen da esaera zaharra? *Abenduko eguna...*

- a) *...epeletik urruna*
- b) *...umel, hotz eta lizuna*
- c) *...argitu orduko iluna*

5. Araban, non bisita daiteke Luzia meategia, XIX. eta XX. mendeetan asfaltoa ustiatzeko erabili zutena?

- a) Ataurin
- b) Azazetan
- c) Maeztun

6. *Tourist Ez Go Home, Errauskailua Txillidalekun, Maite dizut, Barbie ETBn, Miguel 5g...* Zein talderen abestiak dira?

- a) Kau Kori Kura
- b) Ttun Ttun Brigade
- c) Elurretan

7. Zein koloretakoa da jak izeneko ugaztun asiarraren esnea?

- a) Zuria
- b) Horixka
- c) Arrosa

8. Abenduaren 3an ospatzen da Euskararen Nazioarteko Eguna. Baina zein erakundek ezarri zuen lehenengoz, 1949an?

- a) Euskaltzaindiak
- b) Erbesteko Eusko Jaurlaritzak
- c) Eusko Ikaskuntzak

9. Marjane Satrapi-ren *Persepolis* komiki ezaguna euskaraz argitaratu berri dute. Nork itzuli du?

- a) Aroa Uhartek
- b) Irene Arraratsek
- c) Julen Gabiriak

10. Zainzuria esparrago edo frantses porrua bada, zer da zaingorria?

- a) Azenarioa
- b) Geranioa
- c) Pikillo piperra

11. Iruñeritik euskaraz emititzen du Euskalerria Irratiak. Zenbat urte bete zituen iragan azaroaren 7an?

- a) 55
- b) 45
- c) 35

12. Bilboko itsasadarreko ikur nagusietakoa garabi handi bat da. Euskalduna ontziola izandakoan erabili zuten eta egun Itsas Museoko bildumaren parte da. Izena ere badu. Zein?

- a) *Carola*
- b) *Carolina*
- c) *Begoña*

13. Gaskoia, aranera, biarnesa... zein hizkuntzaren dialekto dira?

- a) Katalanarenak
- b) Okzitanierarenak
- c) Ligurierarenak

14. Zein da EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen lelo edo goiburua?

- a) *Eman ta zabal zazu*
- b) *Ekin eta jarrai*
- c) *Asmoz ta jakítez*

15. Albaola Itsas Kultur Faktoria XVI. mendeko euskal baleontzi baten erreplika eraikitzen ari da jendaurrean, garai hartako materiala eta teknikak erabiliz, Pasai San Pedron duen museo eta ontziolan. Nola izena du baleontziak?

- a) *San Pedro*
- b) *San Juan*
- c) *Goiçeko Içar*


16. Norbait itzal handikoa bada, zer da?

- a) Oso altua
- b) Oso famatua
- c) Oso lotsagabea

17. Nola izena du Vanuatuko Errepublikako diruak?

- a) Vatu
- b) Nuva
- c) Doku



	Kimikan adituak		Ez da gezurra		Familia lotura	
	* Izena		Etxeko burua		Noren atzizkia	
	Haurren negar zotina					
	Baztango herria					
					Bokal mehea	
					Zintzo	
	Txirindulari	Zapalketa	Errep., txori mota		Ogi hitz elkarketan	
	Gizakien tasuna	Pertsona faltsua	Jaurtiketa		5. eta 1. bokalak	
* Deitura					Sufrea	
Tiro egilea					Sarean bildu	
				Sute		
				Horma, izotza		
Pisu unitatea				Janaria irentsi		
Gabarra txikiak				Ahal da, agian		
			Klariona			
			Ukazioa			
Bokala	Bokal errepikatua			Bilo		Gipuzkoako mugaldeko hiria
Atun arrantzontzia	Nafarroako udalerrria			Erbioa		
Antzezle					Ez eme	
Itxura					Kanpo, landa	
				Etxeko maskota		
				Boroa		
Bizkaieraz, iratzea, garoa			Oinetakoak garbitzeko gai			

* Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburu gipuzkoarra

Definizioak bete ondoren, idatzi hizki bakoitza dagokion laukitxoan eta Ruper Ordorikaren *Zaindu maite duzun hori* kantako esaldi bat irakurriko duzu, *Kantuok jartzen ditut* diskotik (Metak, 2003) hartua.

1	2	3	4	5		6	7		8	9	10
11	12		13	14	15	16		17	18	19	20
21	22	23	24	25		26	27	28	29	30	31
	32	33	34	35		36	37	38	39	40	41
	42	43	44								

1. Herri batek babesletzat hartzen duen santu.

8 28 34 44 10 31 4 26

2. Amiamoko.

40 9 20 3 1 25 15

3. Jakiak prestatzeko eta jateko erabili ohi dugun etxeko gela.

14 18 38 11 22 42 6

4. Interneten, beste nonbaitera eramaten gaituen lotura.

17 19 29 33 5 21

5. Entzumenaren bidez sumatu.

13 36 T 32 24 2

6. Ez izanik.

43 7 30 41 35

7. Hil.

27 37 12 23 U

8. Nitrogenoa.

16

9. Bigarren bokala.

39

toki ezezaguna



Ba al dakizu zein den ezkeraldeko irudian azaltzen den lekua? Hala bada, joan aizu.eus webgunera, eta erantzun abenduaren 20a baino lehen. Asmatuz gero, sari baten zozketan parte hartuko duzu! Animo, oso erraza da eta!

pertsonaia ezkutua



- 1980an jaio zen, Euskal Herrian, baina duela zenbait urte mundura ere egin zuen jauzi.
- Bi urtetik behin, Euskal Herria dantzan jartzen du; hobe esanda, lasterka.
- Euskarari hauspoa emateaz gain, euskaldunok ahaldundu egiten gaitu, adituek diotenez.
- 2024ko martxoaren 24an egingo dugu topo berriz harekin, Irunen.

Dagoeneko, badakizu zein den, ezta? Bada, joan aizu.eus webgunera, eta erantzun abenduaren 20a baino lehen. Asmatuz gero, sari baten zozketan parte hartuko duzu!

Saridunak!




toki ezezaguna: GERNIKA.

Sariduna: MARIXA GUTIERREZ MARTIN.

pertsonaia ezkutua: IBONE BELAUSTEGIGOITIA.

Sariduna: FELI VEGUIN FERRER.


hitz gurutzatuak



hiztegi e roa

- SAI.
- OILO.
- SAGU.
- HARTZ.
- TXIMINO.
- OSTRUKA.
- SUGANDILA.
- DORTOKA.
- UNTXI.
- SATOR.

letra zopa



atsotitza O satu

SO EGILEA, DANTZARI EDER.

Bost, hogeitlanpara, danbor, alboka, tomate, adar, gitarra, bederatz, marrubi.

hitz katea

- KATE.
- KALE.
- KALA.
- KOLA.
- NOLA.
- NORA.

Sinonimoak Ezkondu

HOZKADA-AUSIKI. BENETAN-EGIAZKI. BARATZE-ORTU. HITZONTZI-KALAKARI. ZEKENZIKOITZ. BASA-LUPETZ. TUTU-HODI. OZTOPO-TRABA. INGURU.

egia ala gezurra

- g.
- e.
- g.
- g.
- e.
- g.
- g.
- e.
- g.
- g.

logika jokoak

Irune, Tafalla, medikua, arroza. Jone, Barakaldo, ingeniaria, pasta. Liker, Zarautz, kazetaria, barazkiak. Mikel, Laudio, irakaslea, haragia. Garazi, Kanbo, abokatua, arraina.

hamazazpi baitz!

- c.
- a.
- b.
- c.
- a.
- a.
- c.
- c.
- b.
- b.
- c.
- a.
- b.
- a.
- b.
- a.

hitz gezidunak



lauki lerroa

INORK EZ ZIDAN ESAN EUSKALDUN IZATEA ZEIN NEKEZA DEN.

- Zaindari;
- Zikoina;
- Sukalde;
- Esteka;
- Entzun;
- Ezean;
- Zendu;
- N;
- E.



Artikulu hauek erosita
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu Bilboko
Mbolo Moya Doole
elkarteari.

Prezioa **28,00 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**

Aurten



Abenduaren 6tik 10era, Durangoko Azoka fantasiaraz beteko da. Duela 58 urteko antolatzaileen ametsa errealitate bihurtuta, gaur egun Azoka ezinbesteko hitzordua da euskal kulturaren egutegian. Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidentek adierazi duenez, *“euskal kulturari bultzada emateko asmoz, aurtengo Durangoko Azoka jendetsua eta aberatsa izatea da gure fantasia”*.
Ez alferrik¹, horixe baita 58. edizioaren leloa: Fantasia DA!

Fantasia da, Mujikaren esanetan, *“sortzaile berrien ilusioa, liburuaren usaina, diskoen kolorea, kulturazaleen irribarrea, boluntarioen lana, aspaldi ikusi gabeko lagunekin topatzea, sormen lan bakoitzaren istorioaren magia, jende alaiaren **berbaroa**², bizitzeko gogoa, kulturaren beroa”*. Fantasiatzat har daiteke, halaber, pandemiaren eragina ahaztu eta azken hiru edizioetako online azoka alde batera utzi ahal izatea: aurten, aurrez aurreko azokaren aldeko apustu osoa egin du Gerediagak, online ereduaren leihoa itxita.

Ohiko guneak, ekitaldirik beteak

Azokara hurbiltzen den orok kultur eskaintza oparoa aurkituko du: 265 ekitaldi eta 170 partaide 257 erakusmahaitan. Eta, guztira, 950 nobedade: 689 liburu, 179 disko edo musika produktu, 44 aldizkari eta bestelako 40 ekoizpen. Landa-gunean egongo dira kultur uzta hori eskaintzen duten erakusmahaiak, baina kultur ekitaldiak ere ez dira faltako inguruko guneetan: Ahotsenea (liburu aurkezpenak, Bartolome Ertzilla Musika Eskolan; disko aurkezpenak, Plateruena Kutur Aterpean), Saguganbara (haur eta gurasoek eus-

Artisauen azoka

Euskal Herriko Artisauen Arbaso Elkarteak ez du hutsik egingo Durangoko hitzorduan: abenduaren 6tik 10era bitartean, herriko Azoka Plazan jarriko dituzte ikusgai eta salgai beren eskulanak, 11:00etatik 14:30era eta 16:30etik 20:30era. Euskal Dendak euskal artisautza tradizionala eta gaur egungoa sustatzen eta hedatzen 27. edizioa beteko du aurten Durangon.

karazko liburu, jolas eta musika ezagutzeko gunea), Kabi@ (euskarak mundu digitalean garatzen dituen egitasmoak, abenduaren 7ko Game Erauntsia barne), Talaia (euskalgintzako egitasmoen aurkezpenak eta mahai inguruak), Irudienea (euskarazko ikus-entzunezkoen emanaldiak,

aizu!-AEKren eskaintza

Gure erakusmahaia Landakoko Artekale 35.ean egongo da edizio honetan. AEKren material didaktikoaz gain, AIZU!k urte osoan kaleratutako zenbaki guztiak egongo dira bertan, baita harpidetza egiteko eskaintza berezia ere. Gainera, 2024ko egutegi polita ere eskuratu ahal izango dute **bertarutzen**⁶ direnek. Horrez gain, aurtengo nobedade nagusia: *Ez da hain fazila* denborapasa bilduma. Letra zopak, hiztegi eroak, hitz gezidunak eta gurutzatuak, atsotitzak, sinonimoak, logika jokoak, hitz kateak, lauki lerroak... ariketa berri eta jostagarritz betetako ia ehun orrialde, buruari euskaraz eragiteko.

Zugaza zinema aretoan) eta Szenatokia (formatu txikiko arte eszenikoak euskaraz, San Agustin Kultur Gunean).

Horrenbesteko eskaintzaren aurrean, **norberak**³ aukeratu behar norberaren egitaraua. Horretarako onena, www.durangokoazoka.eus atarian **zirkun-zarkun ibiltzea**⁴. Hor aurkituko ditugu Nøgen, Konpost, Joserra Senperena, Yogurinha Borova, Zatibi, Eider, Ithaka, Amorante, Haize-Arrosa, Modus Operandi... musika egileak. Idazleak ere bai: Jasone Osoro, Miren Agur Meabe, Luigi Anselmi, Karmele Jaio, Uxue Alberdi, Juan Kruz Igerabide, Patxi Zubizarreta, Harkaitz Cano, Eneko Bidegain, Bernardo Atxaga... Kabi@ gunean, kasu, **puri-purian**⁵ dauden gaiak: nerabeentzako lehen sakelakoa, adimen artifiziala, errealitate birtuala... Talaia gunean, berriz, Irulegiko eskua, nerabeen osasun mentala, *Berria* egunkariaren 20. urtemuga...

Ikus-entzunezkoen alorrean ere zabala da eskaintza. Irudienean, Fermin Muguruzaren *Bidasoa 2018-2023* filma, Kimuak-eko film laburrak, *Lagunok!* podcasta, DemaS.A. (sortzaile amateurren euskarazko film laburren lehiaketako finala), Iker Martinez de Zuazoren *Arnasaldiak* dokumentala...

Szenatokian, Mikel Martinezen *Hama-lau* bakarrizketa, *Eukalyptus* dantza-antzerkiaren estreinaldia abenduaren 8an (iazko sormen bekaren irabazle Jon Ander Urrestiren obra), Patxo Telleriaren *Txizatoki bat eszenatokian* bakarrizketa, *Gordinak* dantza ikuskizuna (Ane Zapirain eta Alicia Rechac)...

Bestalde, aurtengo Azoka anitza eta gaztea izango dela azpimarratu du Gerediaga elkarteak: iaz sortutako Gazte Eztanda egunak bigarren edizioa izango du aurtten, abenduaren 8an, eta abenduaren 7an Ikasle Goiza izango da. Azkenik, ume, gazte zein helduentzako oharra: abenduaren 10ean, domekan, Landako 18:00etan itxiko da, gainerako egunetan baino bi ordu lehenago. Halere, guneetako egitarauak iluntzera arte segituko du.

1. **Ez alferrik:** *no en balde (es), pas en vain (fr).*

2. **Berbaro:** *ahots zarata.*

3. **Norbera:** *pertsona bakoitza.*

4. **Zirkun-zarkun ibili:** *hara eta hona, batetik bestera.*

5. **Puri-purian (egon):** *denen ahotan, modan.*

6. **Bertaratu:** *agertu, azaldu, joan.*

BIKABI
ARTEKARITZA, S.L.
AHOLKULARI PROFESIONALAK



▶ **ASEGURU MERKATUAN ZURE POLIZAREN PREZIOA ETA BERMEAK HOBETU DITZAKEGUN BEGIRATZEA GUSTATUKO LITZAIZUKE?**

▶ **ASEGURU ETXE ASKOREKIN LAN EGITEAK AHALBIDETZEN GAITU**

DONOSTIA

Autonomia kalea, 12 behea
943 474 710

BILBO

944 239 634

www.bikabi.eus
bikabi@bikabi.eus

Besteak beste, hauek

DA!



1



2



3



4

1. **Muturtu:** *estar de morros (es), boudier (fr).*
2. **Oroimin:** *nostalgia (es), nostalgie (fr).*
3. **Ealdura:** *cobertura (es), couverture (fr).*
4. **Bilbatu:** *nahasi, elkarlotu.*

1 ANIMALIA DOMESTIKOAK ● Esti Martinez ● *Elkar* ● Askotarikoak izan litezke pertsonen barnean errotzen diren sentipenak: errutinak dakarren aspertzea, **muturtuta**¹ daudenen haserrea, inkomunikazioa, noizbait bizikide izan zenaren **oroimina**²... Martinezek irakurleak erraz identifikatzeko moduko leku ezagun eta giro intimoak erakusten dizkigu bere lehen ipuin bilduman.

2 NAZIOEN TOURRA. KAZETARITZA, IDENTITATEA, KIROLA ● Xabier Fernandez Monje ● *Txalaparta* ● Tourra nazio harrotasuna eta identitateak sustatzeko tresna izan da sorreratik (1903), berehala erakarri baitzuen **estaldura**³ mediatiko zabala. Lan honek erakusten du nola eragin duten hedabideen irudiek eta mezuek nazio identitateen eraikuntzan eta deseraikuntzan.

3 GAIZKILEEN GALTZADA. LEITZAKO DORREAK ● Garazi Albizua ● *Marrazkiak: Amaia Ballesteros* ● *Pamiela* ● Fikzioa eta XIV. mendeko Nafarroako Erresumako historia **bilbatzen**⁴ dira hemen: bidelapurrak, ahaide nagusiak, gosetea, Gaztelaren trikimailu maltzurak, ustelkeria... Pertsonaia bakoitzaren beldurrak, asmoak eta betebeharrak ezagutuz murgilduko da irakurlea giro hartan.

4 GAUEKO AZKEN EXPRESSO A ● Eneko Aizpurua ● *Alberdania* ● Txikitako lagunaren gaixotasun sendaezinak sorterrira itzultzeko asmoa piztu dio narratzaileari. Haren eta bizikide izan dituen seme, maitale, alaba eta emaztearen ahotik ezagutuko ditu irakurleak protagonista Portugaletik Euskal Herrira ekarri zuten ibilerak: migratzea, ezintasuna, laguntasuna, familia...



aizu!-AEK

58. DURANGOKO AZOKAN

DA!

Erakusmahaia: Artekale, 35.ean

Zatorz bisita egitera!



1 BELDURREZ BESTE EGITEAN ● Arima ●

Bonberenea ● Taldeak

“bidaia baten amaiera” moduan definitu du disko hau. Horrela, egonaldi luze batek uzten dituen **ziurgabetasunak**¹, emozio berri eta ezezagunak, maitasun esperientziak eta ikaskuntzak bildu ditu bertan. Abestiek “*piroteknia gutxiago*” behar zutela ikusi ostean, taldekideak abestien **muinera**² joan eta “*oso gustura*” geratu dira emaitzarekin.

2 LAUPABORTZ AIRE TTUPI ● Haira ● UsoPop


Diskak ● Peio Erramousperen

proiektua da Haira. Moï Moï kolektiboaren barruan egin zituen lehen urratsak ekoizle eta musikari elektroniko gisa, eta orain eskemak hankaz gora **ezartzera**³ dator: Elizanburu idazle saratarraren olerki klasikoak eta familiaren tradizioan inspiratutako doinuak hartuta sortu ditu lan honetako bost kantuek.

3 HAU DENA ● Askoren artean ● Katakarak ● LP

bikoitza eta liburuxka biltzen

ditu lan honek Katakraken 10. urtemuga ospatzeko. Hamabi liburutan oinarritutako 15 abesti sortu eta ia denak Katakrakeko areto nagusian grabatu dituzte, ezohiko estudio inprobisatuan: biolontxeloak, gitarrak, eskusoinuak, zakurrak, xake taulak, arroza, haurrak, alfonbrak, mikrofonoak, zigarretak leihoan...



4 ÅBEN CIRKEL ● Nøgen ●

Balaunka ● Zazpi kantu

sartu ditu Nøgen taldeak lan berri honetan. Orain arte egindakoekin alderatuta, “*desberdina*” dela uste du Olatz Cuevasek, Jokin Gilisagastik, Alex Irazustak, Ane Negeruelak eta Markel Idigorasek osatzen duten bandak. Danieraz jarritako izenburuak “*zirkulu irekia*” esan nahi du, alegia, “*une edo leku bat ez dela inoiz errepikatuko*” adierazten du.

- 1. **Ziurgabetasun:** *incertidumbre (es), incertitude (fr)*.
- 2. **Muin:** *oinarri, funts*.
- 3. **Ezarri:** *ipini, jarri*.





IRISXXII

HONDAMENDIAREN OSTEAN

KOMIKI ZALEENTZAKO

TXALAPARTAK ARGITARATUTAKO

AZKEN ALTJORRA

Julen Ribas eta Yurre Ugarteren eskutik



Goxomendi

Abendua barrurako hilabetea da; epelean¹ egiten diren ekitaldiekin gozatzeko une aproposa. Euskal kulturak Durangoko Azokan du hitzordu nagusia, baina horrek irauten duen bost egunean bada tarterik inguru ezagutzeko eta Durangaldeko parajeaz gozatzeko. Argi orduak gutxi direnez eta eguraldia ere on-ona ez izateko arriskua handia denez, euskarazko kulturazaleentzako aukera ona, arnas pixka bat hartzeko, hauxe da: **Urkiolamendi**. Edo **Urkiolagirre**, bertakoentzat (1.009 metro). Belaze² mendi goxoa da, igotzeko erraza, eta **ikuspegi ikusgarriak** dituena, **Anboto** piramide ikusgarria zaindari duela.


Bizkaiko arnagune garrantzitsuenetakoa da Urkiola (**urkien**³ tokia). Durangaldeko biztanleentzat, mendia pauso batera dago, baina Bilbo Handiko biztanle ugariarentzat ere aukera ezin hobea da, etxetik ordu erdi eskasera. Asteburuetan, Urkiolako santutegia eta Tximistarri harria, mutil edo neska laguna lortzen laguntzen omen duen harri biribila, lepo egoten dira. **Harritzarrari**⁴ hiru buelta eman ala ez, hango gainak familia txango bikaina eskaintzen du: eroso, erraza eta erakargarri bete. Jomuga, Urkiolamendi, 1.000 metro pasatxoko gailur belartsua (Urkiolagirre ere esaten diote bertakoek).

Erosoa da oso, igoera ume txikiekin eginda ere ordu-betean iritsiko gara gailurrera. Erraza, bide osoa belar gainean egiten baita. Tarteka, pinu artean, ia beti belaze zabal eta handietan barrena; paraje honetan, **azienda**⁵ libre eta alai dabil. Eta goxoa, belazean barrena beti egiten delako gusturago bidea. Jakina, gure begiek ere gozatu **itzela**⁶ hartuko dute, Durangaldeko haitz ikusgarriak ohikoa ez den balkoitik bistaratu. Etxeko lanak eginda, eta Urkiola mendatera bueltan, **tripa zorria**⁷ apaltzeko aukera izango dugu salda beroaz eta ogitarteko goxoaz.

Nahi beste aparkaleku dago Urkiola gainean autoa uzteko, baina asteburuetan jende dezente ibiltzen da, esan bezala, eta abenduaren hasierako zubi luzean litekeena da auto pilaketa oso handia egotea. Ibiltzen hasi, eta berehala ikusiko dugu txangoaren nondik norakoak argitzen dituen seinaleztapena: gure ezkerrean, Urkiolagirre gailurrera daraman xenda, **ataka**⁸ bat zeharkatu ostean. **Lokaztuta**⁹ baldin badago, Asuntze lepora eta Pol-Poleko aterpe eta iturrira daraman pista har daiteke.



Urkiolako santutegi ezaguna.



Urkiolamendira bidean, Mugarra, Astxiki eta Alluitz mendi tontorren ikuspegi ikusgarriak.



Urkiolamendira mendi xendatik joateko zeharkatu behar den langa, aparkaleku ondoan.

Luzeagoa eta aspergarriagoa da: 3,3 kilometro pistan eta 1,7 mendi bidetik. Lehena aukera ona da oinetakoak lehor mantentzeko.

Mendiko xenda aukeratuta, gozo, **aise**¹⁰, erraz egiten da bidea. Pinu handien artean aurrena, paraje irekietan ondoren. Pixkanaka, santutegia behean utziko dugu, eta parez pare agertuko zaigu, mendebaldean, Saibi gailurra (954 metro). 10-15 minuturen ondoren, argazki benetan ikusgarria agertuko zaigu begien aurrean: Durango herria bera Alluitz (1.034 m), Astxiki (785 m) eta Untzillatx **haitzen**¹¹ magalean (941 m). Hegoaldera begiratzen badugu, Lekanda, Aldamin eta Gorbeia (1.475 m) azalduko

zaizkigu. Baita Otxandio, Urrunagako urtegia, Gasteiz eta Arabako Lautada osoa ere.

Ikuspegirik dotoreena, baina, tontorrera iritsitakoan dator, Bizkaiko eta Euskal Herriko piramiderik dotoreenetakoa azalduko baitzaigu parean: Anboto, 1.331 metroko mendi puska. Urkiolamenditik ezinezkoa, edo zaila, dirudi gailurrerako bideak, baina bidea egon badago, eta mila-ka mendizalek egiten dute urte osoan. Asuntzeko lepotik hegoaldera, Izpizte eta Oriol mendiak ere agertuko zaizkigu, bigarrena Aramaio (Araba) lurretan dagoeneko.

Txangoa apur bat luzatzea erabakitzen badugu, bela-

zean behera pistara jaitsi eta Pol-Poleko iturrira hurbil gaitzke, itzultzeko bideari ekin aurretik **airoso**¹² isurtzen duen ur fresko ederra dastatzeko. Buelta igo garen bide beretik egin dezakegu, edo, bestela, pista batetik. Urkiolamendi inguratzen badu ere, **zatar**¹³ samarra da. Mendizaleak egun horretan egin beharko duen ahalegin bakarra izango da: nondik itzuli erabaki!

Urkiolamendi gailurreko joan-etorriak ordu eta erdi eskas kenduko digu. Pistatik bueltatuz gero, gehixeago, bi ordu pasatxo. Azokara itzuli aurretik mendi bueltaren ostean suspertzeko denbora, mendizaleen esku! ●



Anbotoko piramide perfektua, Urkiolamenditik.



Pol-Pol iturria, ur emari oparoarekin.



Urkiolamendiko plaka; bertakoek Urkiolagirre esaten diote mendiari.



Azienda bazkan; atzean, Oriol mendia, Arabako Aramaio herriko lurretan.

1. **Epel:** *cálido, -a (es), tiède (fr).*
2. **Belaze:** *prado (es), pré (fr).*
3. **Urki:** *abedul (es), bouleau (fr).*
4. **Harritzar:** *harri oso handi.*
5. **Azienda:** *ganado (es), bétail (fr).*
6. **Itzel:** *eder, paregabe, ikaragarri.*

7. **Tripa zorri:** *gose garenean sabelean izaten dugun sentsazio.*
8. **Ataka:** *ate edo igarobide txikia.*
9. **Lokaztu:** *embarrar(se) (es), s'embourber (fr).*
10. **Aise:** *erraz, arazorik gabe.*
11. **Haitz:** *roca (es), roc (fr).*
12. **Airoso:** *erraztasunez, trabarik gabe.*
13. **Zatar:** *itsusi, edertasunik gabe.*





FOKU

Joli Pascualena

Iruñea, 1976

Pedagogia eta musika irakasle ikasketak egin, ibilbide oparoko aktore eta abeslaria da Pascualena. Askok Pirritx eta Porrotxekin aritu zenetik izango dute gogoan. Demode Quartet **laukotearen**¹ sortzailea, taldearen ikuskizunez gain bestelakoak ere sortzen ditu taldekideekin batera. Esaterako, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* musikala, 2021ean musika ikuskizun onenaren Max saria jaso zuena.

Atalaren protagonista guztien testigantzak:
<https://www.aek.eus/eu/bloga/zelan-euskaraz>

“Euskaltegi guztietan ibili naiz!”

Zergatik erabaki zenuen euskara ikastea?

Nire anaiak hainbat disko-eta ekarri zituen etxera eta bertan euskara entzuten hasi ginen; garai hartan, nik ia ez nekien ezta zer zen ere. Ondoren, Irubide institutura joan nintzenean, euskara eskolak ematen hasi ziren eta orduan hasi nintzen euskararekin, 14 urterekin. Lehenengo urteetan, jarraian ikasten ibili nintzen, gero utzi, berriro hasi... Hamar bat urtez-edo aritu nintzen ikasten. Egia esan, orain ere jarraitzen dut. Oraindik hanka sartzen dut askotan... Baina gaur egun ongi sentitzen naiz euskaraz hitz egiten, eta ia egunero erabiltzen dut. Hau da, poz-pozik nago.

Nolako prozesua izan zenuen?

Institutuan hasi nintzen, esan bezala, eta gero AEKn, IKAn, Leitzako barnetegian, Maizpiden, Hizkuntza-Eskolan... egon nintzen, euskaltegi guztietan ibili naiz! Denetik probatu dut, baina Pirritx eta Porrotxekin lanean hasi nintzenean ausartu nintzen euskaraz hitz egitera. Ordura arte, **larri-larri**² ibiltzen nintzen, batez ere ongi ez hitz egiteak lotsa ematen zidalako. Baina pailazoe-kin hasi nintzenean, pentsatu nuen: “*Kito, ausartuko naiz!*”. Prozesu oso luzea izan zen. Esaterako, Hizkuntza-Eskolan hasi nintzenean, 5. mailan, **lur jota geratu**³ nintzen eta zenbait urtez ikasteari utzi nion. Gorrotoa hartu nion. Amodioaren eta gorrotoaren arteko harremana izan da, baina orain amodioa besterik ez diot. Ez da soilik hizkuntza eta kultura ezagutzea, baita jende ugari ere.

Zer izan da zailena zuretzat?

Euskaraz hitz egitera ausartzea.

Eta errazena?

Eskoletara joatea, oso ongi pasatzen nuen. Lehen urtea, bereziki, oso polita eta dibertigarria izan zen. Gainera, normalean, jendeak oso ongi hartzen zaitu euskaldun berria zarela dakienean.

Gustuko hitza edo esamoldea:

Oro har, euskara asko gustatzen zait, hizkuntzaren **doinua**⁴. Antzerkian, adibidez, batzuetan ikuskizun bera gaztelaniaz eta euskaraz egiten dugu, eta askoz gehiago gustatu ohi zait euskaraz. Nahiz eta ama hizkuntza gaztelania dudana, gozoago sartzen zait euskaraz. Ez dakit, tonuagatik edo...

Trikimailuren bat?

Lotsarik ez izatea, edo, nahiz eta izan, saiatzea eta saiatzea. Nik urteak pasatu nituen ausartu gabe eta orain pena ematen dit. Atzera begiratu eta zergatik ez nuen gehiago egiten galdetzen diot neure buruari. Beraz, ausartu, eta hitz egin konplexurik eta arazorik gabe. Zeren, gainera, euskara dakitenak hortxe baitaude guri laguntzeko. ●

1. Laukote: *lau laguneko talde.*

2. Larri-larri: *oso urduri.*

3. Lur jota geratu: *desmoronarse (es), se décourager (fr).*

4. Doinu: *sonido (es), son (fr).*

Aldudeko ibarra, euskal pilotaren habia

Aldudeko **ibarreko**¹ euskal pilotaren historiak pantaila handira jauzi eginen du laster. Aldudarrak elkarteak dokumental bat egiten ari da ibarreko herritarrek elkarriketatuz, antzinako bertsoak bilduz eta artxiboetako agiri nahiz argazki zaharrak berreskuratuz. Antzinako pilota jokoak nolakoak ziren erakutsi nahi dute, baita gizartean zuten garrantzia ere. Filma 2024. urtean estreinatuko dute, eta, ibarreko pilotari handienaren omenez, *Perkainen itzalean* izenburua jarri diote.

1. Ibar: *valle* (es), *vallée* (fr).



Dokumentalerako hainbat lekukotasun biltzen ari dira.

Kamera eskuan topatu dugu Mikel Erramuzpe (Aldude, 1956), Euskal Kultur Erakundearen lehendakari ohia. Ikusentzuzkoen hainbat saltsatan ibilia da, hala nola Irulegiko Irratiaren sorreran, Lapurdi Irratian eta Aldudarrak Bideo Elkartean, gerora Kanaldude Telebista sortuko zuen horretan. Orain, **erretretak**¹ eskaintzen duen **patxadaz**², erronka berriei heldu die. Adibidez, Banka, Aldude eta Urepele herrietako pilotaren historia kontatuko duen 50 minutu inguruko dokumentalari. Filmak Urepeleko etxe batean **atzemandako**³ argazki zahar bat du abiapuntu, duela 111 urte Gartzelako lepoan jokatu zen partida jendetsu bat erakusten duena.

Mikel Erramuzpek dioenez: *“Pilota Aldudeko historiaz mintzatzeko **estakurua**⁴ da; izan ere, kirola baino gehiago da, kultura bat da, mintzaira bat, bertsoak dira, kantuak... eta hori guztia biribiltzen ari gara”*. Pirinioaurreko ibarretan pilotak izan zuen garrantziari buruzko dokumentala egiten hastean, galdera batzuk etorri zaizkigu burura: *“Nola jokatzeko zuten pilotan gure **arbasoek**⁵? Zer da laxoa? Zein inportantzia zuen pilotak garaiko gizartean?”*. Galdera horien **arrapostuen**⁶ bila, etxeko etxe eramanen gaitu filmak, beste garai batzuk bizi izan dituzten alduarren oroitzapenak ezagutzeko eta artxiboko irudiak ikusteko.

Halere, Erramuzperen taldeak badu erronka handia, euskal pilotako mito handienetako baten bizitza argitu nahi baitu, Juan Martin Inda *Perkain* XVIII. mendeko

“PILOTA, KIROLA BAINO GEHIAGO DA, KULTURA BAT DA, MINTZAIRA BAT, BERTSOAK DIRA, KANTUAK... ETA HORI GUZTIA BIRIBILTZEN ARI GARA”

“LEKUKOTASUNEN BIDEZ, EZAGUTZEN EZ GENITUEN GAUZA ANITZ DESKUBRITU DITUGU, HALA NOLA ALDUDEKO MENDIETAN BAZIRELA PILOTA SOROAK”

MIKEL ERAMUZPE

1. **Erretreta:** *jubilación (es), retraite (fr).*
2. **Patxada:** *lasaitasun.*
3. **Atzeman:** *hartu, eskuratu.*
4. **Estakuru:** *aitzakia.*
5. **Arbaso:** *antepasado (es), ancêtre (fr).*
6. **Arrapostu:** *erantzun.*
7. **Esku-huska:** *a mano (es), à main nue (fr).*
8. **Lekukotasun:** *testimonio (es), témoignage (fr).*
9. **Aldaera:** *variante (es), variante (fr).*
10. **Larru:** *cuero (es), cuir (fr).*
11. **Pilota soro:** *pilotan jokatzeko zelai.*

pilotariarena, hain zuzen ere. Gaur egun, Perkainen izena ez zaigu hain ezaguna, baina oraindik ere euskal pilotako pertsonaia nagusietakoa da. Laxoan aritu zen eta, Erramuzpek argitu bezala, *“historian aipaturiko lehen pilotaria da, eta nazioartean ere atzerriko prentsak haren balentrien oihartzuna bildu zuen. Horrela, pertsonaia mitifikatu zuten eta herri tradizioan sartu zen”*. Horren erakusle, Perkainen kantua izeneko abesti herrikoia edo Parisen egin zuten *Perkain le basque* opera.

PERKAINEN ITZALEAN

Mitoak alde batera utzirik, Alduden izan diren beste pilotari batzuen berri emanen du filmak. Horien artean, Jean Baptiste Teilagina eta Jean Baptiste Artxaño aipa daitezke, 1924ko Parisko Joko Olinpikoetan **esku-huska**⁷ lehiatzeko hautatuak. Erramuzperen esanetan, Parisko prentsan *“aipamen harrigarriak”* egin zituzten bi pilotarien gainean, *“partida galdu bazuten ere”*.

Dokumentala egiteko, zenbait euskal historialariren lanetan oinarritu dira, baina, Erramuzpek azaldu digunez, *“lekukotasunen”* bidez, ezagutzen ez genituen gauza anitz deskubritu ditugu, hala nola Aldudeko mendietan bazirela **pilota soroak**⁹. Era berean, testigantzen bidez, ate bat

ireki nahi izan diote etorkizunari: *“Egun pilota jokoak bultzatzen duten elkarteetako jokalariek gazteekin mintzatu gara, eta, horretarako, Perkain elkarteak udan antolatzen dituen egonaldietan izan gara. Aurten, hirurehun hurrek baino gehiagok parte hartu dute jardunaldi horietan, pentsa!”* ●

BOTE LUZEA: LAXOA

Pilota jokoaren **aldaera**¹⁰ zaharrenetakoa da. Bote luzean jokatzen da, bi taldek buruz buru pilota alde batetik bestera jaurtiz. Pilotariak **larruzko**¹¹ eskularruz jotzen dute pilota, eta pareta erreboterako bakarrik baliatzen da. Talde bakoitzak lau jokalariek ditu: sakatzaila, numeroa eta bi laurdenak; lehen biek eskularru luzearekin jokatzen dute, eta beste biek motzarekin. Bere garaian, modalitate arrakastatsuenetako bat izan zen, baina XX. mendean ia desagertu egin zen. 1960an, Malerreka, Xareta eta Baztan eskualdeetan berreskuratu zuten, eta, hain zuzen, bote luzeko partida bat antolatu eta filmatu dute mendiko antzinako pilota soro batean.



Bankako pilota plaza.

ilustratu



Iñaki ZAPIRAIN RETEGI

'Bekatua' izena du Labandibarren lehen nobelak


Ezezagun baten ohean esnatu da Garazi, 36 urteko emakumea, eta **alboan**¹ daukan mutil gaztea ez da "bere Axi". Hori ikusita, pentsamenduak korapilatu egingo zaizkio nobela honetako protagonistari, bezperan edandako marrubizko tekila txupitoak sabelean bezalaxe. Egoera horretatik abiatzen da Goiatz Labandibarren lehen eleberria: *Bekatua* (Erein). Tragikomedia kutsua dauka kontakizunak, egoera berriak hankaz gora jarriko baitu Garaziren ordura arteko bizimodua: bere harremanak, ziurtasunak eta uste guztiak. Bera da eleberriko protagonista bakarra, Axi bikotekidea eta ondoan duen Mattin gaztea bigarren mailan baitaude. Narrazio laburren bildumak argitaratu ditu orain arte Labandibarrek, eta hauxe du aurreneko eleberria, 2021ean Ramiro Pinilla nobela laburren saria irabazi zuena.



Irakurtzeko

CAYO HUESO

Oihane Amantegi
Elkar, 2023



Cayo Hueso uhartean, Antillen erdian, bizi da **otarrainak**³ arrantzatzen istorioa kontatzen duen kapitain zaharra. Eta hantxe agertuko dira nobelako gainerako protagonistak ere: Virgil musika kritikaria, Maudey jazz kantaria bere bandarekin... Maitemin istorio betikoaren bariazio jolasak, film zahar bateko dekoratua dirudien jokalekua, belarrian gozo sartu eta bertan itsasten den musikaren **oihartzuna**⁴...



"Tontorrean sentituriko emozioen bat deskribatu beharko banu, ez nuke esango poza denik. Bazen hil ala biziko momentu bat. Epikarik ez dago hor". 2023ko urtarrilaren 6an heldu zen Alex Txikon Manasluko tontorra, aurretik huts egindako bi espedizioen ostean. Argazki ikusgarriak lagun, Lemoako alpinistak **xaloki**⁵ hitz egiten dio irakurleari bere sufrimendu, beldur, poz eta une hunkigarriez.

MANASLU NEGUAN

Alex Txikon
Sua, 2023

FOKU



DIMISIOA (Susa) izenburua jarri dio Juan Luis Zabalak bere liburu berriari. Zientzia fikziozko argitalpenak 15 ipuin biltzen ditu: gizakiak dimititu egin du eta mundua AGK Agintaritzza Global Konputarizatuaren eskuetan gelditu da. Euskal Herri independentea, polizia androideak, umeak zituenik ez zekien aita, Bowieren itzala, Marteko margolari heldua, adimen artifizialaren **meneko**² editorea eta beste gurutzatzen dira liburuan. Irakurlearen esku distopia goxoa ala utopia triste den erabakitzea.

1. **Alboan**: ondoan, aldamean.

2. **Meneko**: besteren aginduetara dagoena, mendeko, zerbizari.

3. **Otarrain**: langosta (es), langouste (fr).

4. **Oihartzun**: eco (es), echo (fr).

5. **Xaloki**: naturaltasunez.



GOIZALDE LANDABASO

“Leiala naiz, eta lagun ona”

Idazle bat?

Wisława Szymborska.

Opari egiteko liburu bat?

Joseba Sarrionandiaren *Hnuy illa nyha majah yahoo*.

Irakurtzeko lekuri onena?

Taberna bat, eserleku goxo bat, parke bat.

Zer gosaltzen duzu?

Fruta, kafea eta ogia olioarekin.

Bestondoari aurre egiteko erremediorik onena?

Alkoholik ez edatea.

Zein esaldi edo esakune errepikatzen duzu askotan?

Azken boladan, “*Eutsi goiari!*”.

Zertan ez zaizu inporta gehiegitxo gastatzea?

Liburutan eta kafean.

Norekin joango zinateke trago batzuk hartzera?

Pep Guardiolaarekin.

Pertsonaia historiko bat?

Kleopatra.

Zer dago traban zure etxean?

Gauza asko, seguruenik.

Joateko asmoa daukazu leku bat?

Reykjavik, Montreal eta Florentzia.

Zure lehen mito erotikoa?

Steve McQueen.

Zure bertuterik onena?

Leiala naiz, eta lagun ona.

Zure akatsik handiena?

Kaotikoa naiz.

Besteengan errazen barkatzen duzuna?

Hitzorduetara berandu heltzea.

Eduki nahiko zenukeen eta ez daukazu dohaina?

Ondo kantatzea.

Badakizu aureskua dantzatzen?

Ez, ikasteko daukat.

Lurpera, erraustu ala zure gorpua zientzia

ikerketarako?

Erraustu.

Az.29–Ab.4
2023

EUSKARAREN
ASTEA 2023
Oiarztzun



belarrion



'Bashoan II', esperimentatzen jarraitzeko

Bashoan II kaleratu dute Beñat Achiaryk (ahotsa), Joseba Irazokik (gitarra, zaratak, ahotsa) eta Julen Achiaryk (bateria, perkusioak, ahotsa) Elkar diskoetxearekin. Oraingoan, baina, Oihan Oliarj-Iñes baxu jotzailea elkartu zaie hiru musikariei. Robbie Basho (1940-1986) estatubatuarren lana eta pentsamendua *Bas(h)oan* diskoan islatu zituzten duela sei urte, eta haren segida da honako hau. Bertan, ordea, Bashoren kanta bakarra sartu dute (*Mehera My Love*). Album berriak 10 abesti ditu (lau Itxaro Bordak idatziak) eta, aurrekoak bezala, esperimentazioa du oinarri, herri musika garatzeko bide ausartak proposatuz. Tradizioa abangoardia historikoeekin eta moder- nitate **zalapartatsuekin**¹ kutsatzen du lan honek, muga artistiko eta geografikoak gainditzen dituen bitartean.

Entzut  lekol

I
Algoritmötik At
Egilea editore, 2023

Zizur Nagusiko taldeak post-rocketik abiatutako lan psikodeliko eta **jolastia**³ kaleratu du. Bederatzi abesti bildu ditu disko honetan: udaberrian kaleratutako *Zubiazpiko Gorpua*, *Komeriak* eta *Surdez Lermontov* singleak gehi beste sei. Guztiak ere Mikel Braco (ahotsa eta gitarra) eta Oihan Elipe (ahotsa eta bateria) taldekideek idatziak. Berto Estebanek (baxua) eta Mikel Lopezek (ahotsak) osatzen dute banda.



URTZ taldeak *Esnatzean* kaleratu du, lehen akordeak jo zituenetik 35 urte igaro direnean. Haren estiloak oso identifikagarria izaten jarraitzen du, nahiz eta aldaketa esanguratsuak antzeman disko honetan, gitarren **marruma**² eta melodien lasaitasuna soinu elektronikoekin nahasten direlako. Baina ez da musika iraultza, pixkanaka doan mutazio berritzailea baizik. *"Lozorroan murgildutako testuinguru sozial honetan, esnatzea eta bihotza iparrorratz gisa hartzea"* aldarrikatzen du diskoko zazpi kantetan.

- 1. Zalapartatsu:** zarata asko egiten duena.
- 2. Marruma:** oihu, garrasi.
- 3. Jolasti:** juguetón, -a (es), joueur (fr).
- 4. Nabarmendu:** besteren gainetik egon.

Spotify eta YouTube plataformetan hainbat kanta argitaratu ondoren, lehen diskoa atera du orain taldeak, hamar abesti bilduta. Popa **nabarmetzen**⁴ da bertan, nahiz eta rockarekin edo indiearekin ere jolasten duen. Taldea 2020an jaio zen Maria Mateo abeslariaren kantei musika jartzeko. Pello Iturria (bateria eta ahotsa), Oihane Gulina (pianoa), Julen Hoyuelos (gitarra) eta Nekane Ibero (gitarra eta baxua) dira gainerako kideak.

NORA GOAZEN JAKIN GABE

Lilo
Egilea editore, 2023

Disko gogokoenak

GOTZON HERMOSILLA



BAIONA ZIKINA

Kuma No Motor
Egilea editore, 2023


Ozen, azkar, gogor

Baiona zikina Lapurdiko Kuma No Motor hirukotearen hirugarren disko luzea da, eta euskaraz osorik abestutako lehen aurreko bietan zenbait kantu ingelesez baitziren. Taldeak hardcore azkar eta **oldarkorra**¹ egiten segitzen du, AEBetako hardcore talde klasikoaren ildotik (niri, zenbaitetan, Poison Idearen lehenengo diskoak ekartzen dizkit gogora). Kantu batzuetan, **pasarte**² pisutsu eta geldoagoak txertatu dituzte, eta, lehenengo aldiz, hiru minutu baino gehiago irauten duten abestiak sartu dituzte (*Haize kontra; Ez sinets, ez erran*), baina horrek ez dio indarririk kentzen azken emaitzari. Oraingoz, kasetea eta CDa argitaratu dituzte, eta binilozko edizioa Durangoko Azokan egongo da salgai.

1. **Oldarkor:** *indartsu*.

2. **Pasarte:** *zati, atal*.

Musikaria mintzo



GORKA ARMENDARIZ
(LEIHOTIKAN)

Musikari edo talde bat? JC Pérez (Itoiz).

Opari egiteko disko bat? Ibil Bediren *Beltxarga Beltza*.

Musika entzuteko lekuri onena? Autoa.

Zer gosaltzen duzu? Tea.

Zer galtzen zaizu beti? Giltzak, diru zorroa... baina gero ia beti agertzen dira.

Zein esaldi edo esakune errepikatzen duzu askotan? "Ahal den tokiraino iristen gara".

Zertan ez zaizu inporta gehiegitxo gastatzea? Janarian.

Zure lehen mito erotikoa? Victoria Abril.

Pertsonaia historiko bat? Lucio Urtubia.

Bestondoari aurre egiteko erremediorik onena? Ibuprofenoa.

Zure bertuterik handiena? Leialtasuna... (hori diote).

Eta lagunengan gehien estimatzen duzuna? Zintzotasuna.


Zer eramango zenuke uharte huts batera? Eguzkitarako krema.

Badatoz jolasak!

Jolas hezitzaileen gida 2023-2024 eskuragarri elkar liburu dendetan doan.

www.jolasak.eus

ekar



Badon*

Korrika Kulturala hasteko, Badon*

Abenduaren 1ean estreinatuko dute, Gasteizko Principal Antzokian, *Badon**, I. Korrika-AEK Bekaren lan irabazlea. Korrika Kulturalako egitarauaren ardatza izango da opera **garaikide**¹ eta postdramatikoa. Hausnarketa, ikerketa eta sorkuntza prozesu kolektibo baten emaitza da: *“Geure burua birpentsatzeko eta berreraikitze ariketa, baina, batez ere, geure burua ospatzeko festa”*. Nahasketa du muinean, bai sormen prozesuan bai **oholtzan**². Hala, diziplina ugaritako artista garaikideak batu ditu. Marina Suarez Ortiz de Zaretekin zuzenduta, Ainara Gurrutxaga, Ines Osinaga, Xanti Agirrezabala eta Oihana Vesga izango ditu taula gainean. Estreinaldiaren ostean, esan bezala Korrika Kulturaren barruan ikusi ahal izango da: abenduaren 17an, Donostian; urtarrilaren 12an, Bilbon; 13an, Irunen; 18an, Iruñean; 21ean, Baionan; 28an, Donapaleun; otsailaren 3an, Tuteran; martxoaren 2an, Orbaizetan; 3an, Arrasaten; 7an, Hernanin; 9an, Altsasun; 10ean, Astigarragan; 15ean, Andoainean; eta 22an, Basaurin.

S o & U k i & K l i k

Bilbo, mendiko zinemaren hiriburu



Abenduaren 8tik 17ra egingo da BBK Mendi Film Bizkaia nazioarteko mendiko zinemaldiaren 16. edizioa. Aurten, guztira, 15 herrialdetako 57 film eskainiko dituzte. Gehienak, 51, Sail Ofizialean lehiatuko dira. Beste lau, aldiz, lehiak kanpo ikusi ahal izango dira, *Zabalandi* sailean. Batean zein bestean, izango da euskal ekoizpenik. Besteak beste, *212 Mountains*, *Konfiantza itsua*, *Leizeta*, *Noizko basoa*, *Zerbait aldatu da* eta *Udalatx, ura eta atxa*. Era berean, *Oinez* pelikula estreinatuko dute, iaz Mendi Film Bizkaia Ternua Beka jaso zuena. Ohi den moduan, erakusketak eta hitzaldiak ere izango dira, baita omenaldiak ere. Hala, batetik, Edurne Pasaban alpinistak WOP Mendi Film 2023 saria jasoko du. Bestetik, Eliza Kubarska alpinista eta zinemagileak, aurten IAMFren (*International Alliance for Mountain Film*) sari nagusia jaso duenak, bere ibilbidearen aitortza jasoko du. Egitarau zehatza nahiz emanaldietarako sarrerak mendifilmfestival.com gunean eskura daitezke.



EITB

EUSKARAZKO SOINU FIKZIOA sustatzeko, Audiogile Berriak egitasmoa jarri dute martxan EITBk eta Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak. Fikziozko audio-gidoi proiektuak aurkez daitezke egitasmoaren deialdira; hiru hautatu, garatu eta gidoi bilakatuko dituzte. Horretarako, Tabakalera prestakuntza jaso eta egonaldia egingo dute aukeratutako hiru *“audiogileek”*, 2.000 euroko laguntza jasota.

Ondoren, epaimahai batek onena aukeratuko du, EITBk **ekoitzi**³ eta zabaltzeko. Deialdian izena emateko epea urtarrilaren 8an amaituko da. Oinarri zehatzak tabakalera.eus eta eitb.eus atarietan daude ikusgai.

1. **Garaikide:** *gure garaiko, garai honetako.*
2. **Oholtza:** *agertoki, eszenatoki.*
3. **Ekoitzi:** *produzitu.*
4. **Jatorri:** *origen (es), origine (fr).*



ELIA itzultzaile automatikoa Telegram aplikazioan integratu du Elhuyarrek. Elia baliatzeko, Telegrameko kontaktuetara gehitu behar da. Testuren bat itzuli nahi denean, Eliari bidali, eta itzulpenarekin erantzuten du berehala. Euskaratik gaztelaniara itzultzeko konfiguraturua dago, baina hizkuntza gehiago hauta daitezke bai **jatorrian**⁵ bai itzulpenean: euskaraz eta gaztelaniaz gain, frantsesa, ingelesa, katalana eta frantsesa.

HITZA, musika, dantza eta antzerki fisikoa baliatuta, gerra bat biziartzat du Pizifaktoria Ideien Laborategiaren azken lanak: *Hau gerra bat da*. Formatu berrizaileria du, publikoak erabakitzen duenaren arabera modu batean edo bestean garatzen delako. Mikel Ayllonek zuzendua, Ayllonek berak, Irati Agirreazkuenagak, Iholdi Beristainek eta Igor Arzuagak osatzen dute lantaldea. Azaroaren 29an Bilboko Euskararen Etxean aurkeztu ostean, abenduaren 14an Azpeitian eskainiko dute, eta 26an, berriz, Laudion.



CAFE BAR BILBAOK Tartean Teatroaren laguntzarekin antolatutako antzezlan laburren lehiaketan lanak aurkezteko epea zabalik dago oraindik, abenduaren 31ra arte. Aurtengoa 21. edizioa du, eta, ohi bezala, bi sari izango ditu: bata euskarazko obrarentzat eta bestea gaztelaniazkoarentzat, biak ere 750 eurokoak. Horrez gain, Tartean Teatroak lan sarituen irakurketa dramatizatua antolatuko du. Informazio gehiago, Cafe Bar Bilbaoren webgunean (<http://bilbao-cafebar.com>).

TANTTAKA KONPAINIAK *Esnearen Kolorakoa* antzezlan estreinatuko du, abenduaren 3an, Bilboko Arriaga Antzokian. XIX. mendeko Ingalaterrako nekazaritza giroan kokatutako istorioa da, eta Nell Leyshon idazle britainiarren izenburu



TANTTAKA

bereko eleberrian oinarritua dago. Aizpea Goenagak itzulia eta Fernando Bernusek zuzendua, Joseba Apaolaza, Miren Arrieta, Mireia Gabilondo, Aitziber Garmendia, Jon Olivares eta Jose Ramon Sorozitu aktore.

kalderapeko
kulturgunea
jatetxea

eguneko eta asteburuetako menuak
enkarguzko menuak taldeentzat

Txakur kalea, 1. Bilbo. 94 416 40 99
kalderapekobilbo@gmail.com

Basatxerri

Basatxerri
Kultura
Espetiko
Teatrua
1978



The Old Oak

ISTORIOA: 2016. urtea. Ingalaterra-ko ipar-ekialdeko herri batean, pub bakarra geratzen da zabalik, eta hura da herritarrek biltzeko duten leku bakarra: The Old Oak. Meategiak **us-tiatzetik**¹ bizi ziren herritarrak, baina itxi zituztenetik gainbehera joan da herria. Hala, bizilagun asko pobrezian bizi dira. Etxe ugari hutsik eta saltzeko merke, agintariak Siria-ko errefuxiatuei ostatu emateko baliatuko dituzte. Horrek **talka**² sortuko du zenbait herritarrekin.

ZUZENDARIA: Erretiratzeko gogorik ez zaio sumatzen Loach beterranoari. Edo, ziurrenik, mundua nola dagoen kontuan hartuta, ez du erretiroa hartzeko aukerarik ikusiko. Hala, oraingoan politika xenofoboaren oldarrari erantzun dio.

ONENA: Merkatu sakrosantuaren mendeko politikek gizakia txotxongilo hutsa bihurtu duten garaiotan, enpatia baliatzen du Loachek ikuslearengana heltzeko, itxaropenari **zirrikituak**³ ireki eta hain mundu

ZUZENDARIA: KEN LOACH.

GIDOIA: PAUL LAVERTY.

AKTOREAK: DAVE TURNER, EBLA MARI, DEBBIE HONEYWOOD, TREVOR FOX.

ERRESUMA BATUA-FRANTZIA, 2023.

ilunean argi izpiak badirela erakusteko. Hori bai, azpiratuak azpiratua- goen kontra jartzen dituen sistema zitalean arrakalak sortzeko bidea ere argi erakusten du: “*Sendotasuna, elkartasuna eta erresistentzia*”.

TXARRENA: Ez da Loachen filmik onena, inondik inora ere, eta askok esango dute estereotipoz eta topiko-koz josita dagoela. Are gehiago, zirikorik eta erretxin **zaharmindurik**⁴ ere izango da kalitate eskaseko film trakets eta ñabardurarik gabea dela esango duena, sentimentaltasun merkeaz baliatzen dena mezua, Loachengan hain **usatua**⁵, zabaltzeko. Horiei guztiei **azkura eragiten**⁶ badie, primeran!



RAKEL
EZPELETA
AKTOREA ETA
ABESLARIA

Gustuko duzun filma? *Annette*.

Zuzendari bat? Fernando León de Aranoa, Juanma Bajo Ulloa, Lars von Trier, Stanley Kubrick. Oso zaila da bakarra esatea!

Askotan ikusi duzun filma? *Dirty Dancing*, 10-12 urte nituenean.

Osorik ikusi gabe utzi zenuen... *Torrente*.

Lagun bati ez zenioke inoiz gomendatuko... Akziozko filmak, aspergarriak iruditzen zaizkit.

Gustuko duzun aktore bat? Michaela Coel.

Gustuko duzun telesaila? *I May Destroy You*, *Parliament*-en lehen denboraldia, *Guilt*...

Zinemara bakarrik ala lagunduta? Bietara.

Zinematik atera eta gero... Norbaitekin banago, zer edo zer hartzera.

Ikusi duzun azken filma? *Chinas*, Arantxa Etxebarriarena.

Ikusi nahi duzuna? *Creatura*, Elena Martín Gimenoarena; eta *Tetuan*, Iratxe Fresnedarena.

Eta telesaila? *La Mesías*.

1. **Ustiatu:** *esplotatu*.

2. **Talka:** *gatazka, arazo, ika-mika*.

3. **Zirrikitu:** *resquicio (es), faille (fr)*.

4. **Zaharmindu:** *beti haserre dagoena, sumindu*.

5. **Usatu:** *etengabe erabilia*.

6. **Azkura eragin:** *irritar (es), irriter (fr)*.



WhatsApeez hitz egin behar dugu

Imajinatu zure herriko udalak antolatutako ikastaroetan izena emateko edo irrati publikoan mezu bat uzteko, telefonia operadore jakin batetik deitu behar izatea, **halabeharrez**¹. Edo erakunde publiko horietara gutun bat helarazi behar izanez gero, mezularitza enpresa pribatu jakin batekin egin behar izatea, ezinbestean. Zentzugabekeria galanta, ezta?

Bada, horixe bera gertatzen ari zaigu oraindik ere egunero telefono bidezko mezularitza zerbitzuekin. Elkarte eta enpresa ugari, eta, are larriagoa, erakunde publiko askok eta askok, WhatsApp eskaintzen dute haiekin komunikatzeko bide bakar edo, behintzat, **lehenetsi**² gisa. "Doakoa da eta mundu guztiak dauka" izaten da azalpenik ohikoena.

Bada: ez bata ez bestea. WhatsApp ez da doakoa, baina dirutan baino datutan ordaintzen da zerbitzua. Jabeari, Facebooki, erabiltzaile bakoitzaren datuak, elkarrizketak, kontaktuak, telefonoan instalatuta dituen aplikazioen zerrenda **eta abar**³ miazteko eta informazio hori erabiltzeko baimena ematen zaio.

WhatsApp ez da zerbitzu publikoa. Ez da egia "mundu guztiak" duenik. Gero eta gehiago gara hura erabiltzen ez dugunok, erabaki dezakegun bezala gure argindar kontratua edo telefoniakoa

enpresa honekin ala harekin egitea edo sukaldeko hozkailua marka batekoa ala bestekoa erostea, eskaintzak konparatu ondoren.

Ondorioz, elkarte, enpresa eta, batez ere, erakunde edo komunikabide publiko batek bere komunikazio kanal nagusi gisa WhatsApp lehenesten duenean, bere ingurukoak mezularitza zerbitzuko jardunbide okerrenatik sobera ezaguna den enpresa jakina kontratatzea behartzen ditu. Gauza oso-oso larria da; are gehiago, onartezina herritar guztion eskura egon beharko luketen erakunde publikoen kasuan.

Konponbide erraza du, hala ere: jarrai dezatela WhatsApp bidezko komunikazioa eskaintzen, nahi badute, baina ez kanal bakar edo lehenetsi gisa. Betiko telefonoa, posta elektronikoa eta/edo beste mezularitza aplikazio batzuk ere eskain ditezke aukeran. Erakunde publikoen kasuan, nahi-taeko iruditzen zait komunikatzeko kanal bat baino gehiago eskaintzea... eta beste guztien kasuan ere, oso aukera gomendagarria!

- 1. Halabeharrez:** beste aukerarik gabe.
- 2. Lehenetsi:** predeterminatu.
- 3. Eta abar:** etcétera (es), et cetera (fr).

LOTURAK

<https://labur.eus/whats>
Bost arrazoi WhatsApp gorrotatzeko. Aspalditxoko testua nire blogean.

<https://labur.eus/alter>
WhatsApp moduko beste aukera batzuk, Sarean irratsaioaren artxiboan.

<https://labur.eus/lanhar>
WhatsApp eta lan harremanak, artikulu mamitsua Berriaren webgunean.

Egin zaitez harpidedun

IFK/NANA CIF/DNI..... **Izen-abizenak** Nombre y apellidos.....

Helbidea Dirección..... **Posta kodea** Código postal.....

Udalerria Localidad..... **Posta elektronikoa** Correo electrónico.....

Herrialdea Provincia..... **Telefono zenbakia** Teléfono.....

Harpidetza..... Paperezkoa Digitala Paperezkoa+digitala

Ordaintzeko era Forma de pago

Banku bidez Domiciliación bancaria

IBAN _____ (24 digitu)

Sinadura Firma

aizu.eus atarian
ere egin dezakezu
harpidetza

Informazioa gure fitxategian gordeko da, eta isilpekoa da. Interesdunak aldatu edo ezabatu egin dezake. Datuak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoaren arabera zaindu eta erabiliko dira. La información será guardada en nuestro fichero, y es confidencial. La persona interesada puede modificarla o suprimirla. El control y tratamiento de los datos se realizará en base a la Ley Orgánica de Protección de Datos Personales.

* Kontraktorik agindu ezean, harpidetza urtero berrituko da. En caso de no notificar lo contrario, la suscripción se renovará anualmente.

URTE OSOKO HARPIDETZA

Paperezkoa:

Hego Euskal Herria eta Espainia: **31 €**

Ipar Euskal Herria: **38 €**

Europa: **52,5 €**

Digitala: **21 €**

Paperezkoa+digitala:

Hego Euskal Herria eta Espainia: **36 €**

Ipar Euskal Herria: **43 €**





Hemengoa
izatea ona da

EROSKIk Euskal Autonomia Erkidegoko
1.700 hornitzaileekin
lan egiten du, **770 milioi eurotik**
gorako erosketa-bolumenarekin



EROSKI

zurekin



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

Euskara. Kultura. Mundura.